

KIROLEZ KIROL: Valenciaga Memorialaren edizio berria •  
 GAZTEKITTO: Gazteen lokalak arautzeko saiakera • FIRIN  
 FARAN: Txotxongiloen lilura gaurtik aurrera Portalean •  
 ERREPORTAJEA: Eibar KE-ri buruzko dokumentala • DANON  
 AHOTAN: Andrak hezitzeko programa berria abiatuko da •  
 ELKARRIZKETA: Marta Gómez, Armaginen Elkarteko gerentea

**633 zkia. EIBARKO ASTEKARIA 2008-IV-4**



## “La Traviata” Coliseoan



Clínica Oftalmológica  
**RECALDE**  
 Oftalmologi Klinika

Plaza Barria, 2 - 2.  
 Tfnoa.: 943 201 844  
[www.clinicarecalde.com](http://www.clinicarecalde.com)

# Euskal Eskola Publikoa

Urtez urte  
hazten dira.  
**Baita euren  
eskola ere.**

*Etanlizkunderako prestakuntza  
Ezlagutzetako teknologikoak  
Eleaniztasiora  
Balore integratzaileak*

**AMAÑA**

943 20 72 50

**ARRATEKO ANDRA MARI**

943 20 72 35

**J.A. MOGEL IKASTOLA**

943 20 84 87

**SAN ANDRES**

943 20 79 95

**URKIZU**

943 12 17 78

**ITZIO D.B.H.**

943 70 22 89

**MOGEL ISASI D.B.H.**

943 20 30 94

**Aurrematrikulak:  
Martxoaren 31tik  
apirilaren 11ra**

**2008  
2009  
IKASTURTEA**

HAUR, LEHEN ETA  
DERRIGORREZKO  
BIGARREN  
HEZKUNTZAKO  
IKASTETXEETAN

**Euskal Eskola Publikoa:**  
Hobera egin du kalibideetan,  
berrikuntzan eta kalitatean



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIVERSITATE  
ETA IKERKETA SAIA

**baikara**  
egokiaz gurean  
Gurean Federazioa



Euskara Elkarteak

**ARGITARRATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkarteak

**HELBIDEA:**

Urkizu, 11 - solairuartea  
20600 Eibar

**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

**FAXA:**

943 20 28 72

**Astekariaren E-MAILak:**

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

**Elkartearen E-MAILak:**

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**

Koldo Mitxelena

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

Jose Luis Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**

Leire Iturbe, Silbia Hernandez

eta Ekhi Belar.

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu

Belen Ulazia

**Tfnoa:** 943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA:**

La Traviata

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ihintza Fernandez

**TIRADA:**

8.000 ale

**INPRIMATEGIA:**

GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:**

SS/430/92

ISSN:

1132 - 1679

*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

Sail honen helburua ez da euskera irakastea, ezta hiztegi bat egitea ere. Gure gurasoek eta haien gurasoek erabiltzen zuten euskera gogora ekartzea eta berreskuratzea da asmoa. Gaur egunean euskerak esparru guztiak hartu ditu eta gaur egun baino euskaldun gehiago ez da inoiz egon; baina, hala ere, oraindik euskera ez da erabateko komunikazio-tresna: hainbat gauza esatea kostatu egiten zaigu, ez dugu gazteleran bezalako erraztasunik eta trebetasunik. Sail honetan euskeraren alde adierazkorra landu nahi dugu, euskerak berez daukan gatzeta eta berakatzeta berreskuratu. Horretarako aurreko belaunaldietara jo dugu, gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera jatorraren berri jasotzeko.

**EDARRA / ERRADA.-** Uretarako balda. "Gure sukaldian zan armaillia, eta armaillan lau edarra, urez beteta Portaleko iturririk".

**EDERRA EGIN.-** Egitekoren bat (txarra edo ona) egin. "Oin be ederra egin jonat, arrautza-oskola sartaiñera, olixotara bota eta gorringua basurara".

**EDERRA SAKATU.-** Engainatu, ziria sartu. "Ederra sakatu detsa emaztiari, balio ez daben milla pezetakuakin".

**EDERRAK HARTU/EMON.-** Zerbaitetan galdu edo irabazi. Jipioia jaso edo eman. "Ederrak Hartuta dago, emontzallia izan arren".

## IRAKURLEA PROTAGONISTA eskutitzak

**OHARRA:**


Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zerbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

**ERREDAKZIOA**

## asteko esaldiak HEMEROTEKA

*"Gaztea nintzenean, museoak hutsik egoten ziren eta bakarrik bertako zaintzailea ikusten zenuen, bazter batean lotan. Orain ikaragarriko ilarak sortzen dira eta jendeak bidaiak egiten dituzte museo berri bat ikusteko. Zertara doa bertara? Ez dakigu. Desodorante marka bat erosteko gauza gara emakumeak gure atzetik etorriko direlakoan!"*  
**(Eduardo Mendoza, Idazlea)**


*"Dagokionari: Konpostelako Santiagotik 10 kilometrora pisu altu eta argia salgai, eraiki berria eta kanpora begira. 80 m<sup>2</sup>koa, egongela handia tximiniarekin, sukaldaria azken aurrerapenekin eta bi bainu oso, bat hidromasajearekin. Gara-je bikoitza eta trasteroa. Prezioa: 140.000 euro. Komunitateko gastuak: hilero 30 euro. Ni Euskadin bizi naiz, eta zu?"*  
**(Maria Domínguez Varela, egunkarian)**



**EIBARKO UDALA**



**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)**



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria**




## Hori da dagoena!

Onerako eta txarrerako. Hori da dagoena! Gure gazteen ahotan ohiko da entzutea. Amore ematea, konformismoa, gaurkotasuna edo errealitatea. Dagoena da! Eta hori aldatzea ez da samurra. Buruarekin ormarekin kontra jartzeko modukoa da `hori da duguna´esan behar izatea, beste aukerarik ez aurkitzea. Baina egunero askotan entzuten ditugu halakoak. Irratia piztu eta jasanezinezko tertulia entzun behar duzu, aipatu ezinezko iruzkinekin. Telebistarekin gauza bera eta, bost minututan adi egotea lortzen baduzu -lau begi eta hiru eskurekin, zure biak eta mandoarena-, astia duzu nondik hartu ez duten programak ikusteaz aparte, baita aspertzeko ere. Gehiago esango nuke: ahalegin handirik gabe, aparatua itzaltzera hel zintezke. Goizero, egunkaria zabaldu eta ez dakit zein alderdi politiko ez dakit beste zeinekin haserretu dela, gero berriro lagun egin eta gobernu lanetan batera dihardutelaren berriarekin gosalzten duzu. Egoerak eta pertsonak aldatuta ere, benetako aldaketak zailagoak dira. Gauzak diiren modukoak dira eta amore ematen dugu. Hiriak -persona, kale, etxe eta aktibitate multzo moduan ulertuta aldatzen doaz, baina keinu txikietan bakarrik nabaritzen da hori. Eibar izan zena, dena eta izan daitekeena da. Ez gehiago, ezta gutxiago ere. Beti aipatzen ditugu eibartarren izaera enpreddorea, gure herriaren zabaltasuna, hemendik irten diren ideia eta proiektuak (Eibarrek hiri titulua izan arren, guretzako gure herria izango delako). Gaurkotasuna ere badugu: badabilen herria gara, aurrera iritzeko gogoz eta aro ilunagoak atzean lagatzeko itxaropenaz. Duguna, izan ginena eta izatera hel gintzekeena, dena batuta agertzen zaigu. Etorkizuna hemen da. Biharko eguna, edo hemendik ordubeterako unea... hori da datorkigun etorkizuna. Onerako zein txarrerako. Hori da dagoena!

**Ana Lete**  
(KAZETARIA)

## Emakumeendako enplegu tailerra

Eibarko Udalak eta Estatu Mailako Enplegu Zerbitzu Publikoak (orain arteko INEMek) 30 bat lagun hezitzeko programa ipiniko dute martxan. Ahal dela, ikasketa maila bajuko 25 eta 55 urte bitarteko emakumeei eskainiko diete horretarako aukera. Programarekin bat egiten duten emakumeek nagusiak zaintzeko erizaintzan eta pintore-lanetan trebatzeko aukera izango dute. 'Sarbidet VI' programaren barruan garatuko den proiektua Eibarko Lantegi Eskolarekin koordinatuta landuko da, 2008ko abendua eta 2009ko ekaina bitartean. Tailerretan parte hartzeko aukeraturtako jendeak arlo praktikoa lantzeko aukera izango du, San Andres egoitzan eta etxerik-etxeko zerbitzuan geriatria arloko formakuntza jaso behar dutenen kasuan eta Portalea margotzen, bestetik, pintura arlokoen kasuan. Formakuntza planak 727.000 euroko aurrekontua izango du eta, aurreikusita-



koari jarraituta, Estatu Mailako Enplegu Zerbitzu Publikoak %80 inguru ordainduko du; Udalak gainontzeko gastuei egingo die aurre.

## Armeria Eskolako ikasle ohien asanblada

Bihar, zapatua, Armeria Eskolako Ikasle Ohien Elkarteak urteko asanblada egingo du. Ekitaldiak goizeko 11.00etan hasiko dira, Jose Maria Ulazia elkartearen presidentearen agurrarekin. Ulaziaren ondoren Jose Luis Novoa

ikastetxeko zuzendariak egingo du berba. 12.00etan hamaitaketa egingo dute eta, jarraian, 12.30etan, elkarteak antolatutako Argazkilaritza Digtaleko Lehiaketan saritutako lanen egileei sariak emango dizkiete. Ondoren, orain gutxira

arte MCC taldeko presidentea izan den Antonio Canceloren hitzaldia entzuteko aukera izango da.

Goizeko ekitaldiak amaituta, Arraterako bidea hartuko dute, Kantabria jatetxean denek elkarrekin bazkaltzeko. Bazkalostean 1958ko promozio kideei 50. urteurreneko dominak banatuko dizkiete eta 25. urteurrena betetzen duten 1983ko promozio kideei, berriz, diploma bana emango diete. Antolatzaileek aditzera eman dutenez, Armeria Eskolako frontoia goizean aparkaleku gisa erabiltzeko moduan izango da eta Arratera igo eta Eibarrera bueltatzeko, berriz, autobus zerbitzua egongo da.



## Auto istripu bi eguaztenean

Zubitik behera, Deba ibaira automobila jausi zen eguazten goizean Maltzaga inguruan eta istripuan Bergarako 40 urteko gizonzkoa zauritu zen, Herrizaingo sailetik aditzera eman dutenez. Goizeko 11.00ak aurretik gertatu zen istripua GI-627 errepidean, Agateko industrialdearen parean: gidariak errepidea eta enpresa bat bazten dituen zubia zeharkatzera joan eta, zehaztu bariko arrazoiak medio, automobila zubitik behera joan zen. Automobila urperatu egin zen, baina gidariak automobiletik irtetea eta igeri eginez bazte-

rerraino ailegatzea lortu zuen. Handik errepideraino igo ahal izateko suhiltzaileek lagundu behar izan zioten eta handik Mendaroko ospitalera eramane zuten, pronostiko erretserbatuko zauriekin.

Ez zen hori izan goizeko istripu bakarra: automobila errekarra jausi zen tokitik gertu furgoneta batek eta lur orotako ibilgailuak elkar jo zuten eta han zihozten eibartar bi, 45 urteko gizonzkoa eta 64 urteko andrazkoa zauritu ziren. Zaurituak Mendarora eraman zituzten, hauek ere pronostiko erretserbatuarekin.

## autuan

### HORMAK GARBITZEARI EKIN DIOTE

Herriko hormetako 'pintada' eta graffitiak garbitzeari ekin dio Udalak. Aste honetan bertan Txal-txa Zelaiko igogailuan zeudenak garbitzen ibili dira eta datozen egunetan herriko beste toki batzuetara zabalduko dituzte lanak. Horma eta pintura motaren arabera teknika bat edo bestea erabiliko dute.

### OLIO BIRZIKLAKETA

Datorren eguaztenean, hilaren 9an, Untzagan jaso-ko dute etxean erabilitako olioak, gero birziklatzeko. Mankomunitateko furgonetan entregatu beharko da olioak, goizeko ordutegian: 09.00etatik 13.00etara. Gogoan izan zerbitzu hori hil bakoitzeko lehenengo eta bigarren eguaztenean eskaintzen dela, Rialto parean eta Untzagan, txandaka.

### TAXI-BUSA IXUARAINO

Udalbusa ailegatzen ez den tokietaraino heltzeko asmoarekin ipini zuten martxan taxi-bus zerbitzuaren ibilbideak gehitzen joan dira denborarekin eta, gaur egun, Mutiola, Sansaburu, Errekatxu, Jardiñeta, Itzio eta Matsaria moduko tokietara ailegatzearaz gain, Ixuaraino joateko aukera eskaintzen du zerbitzuak. Taxi-busak ordutegi zehatza dauka, autobusak bezala eta taxi-gidariekin Udalak egin zuten hitzarmenari esker eskaintzen da.

### BIKIEN BAZKARIA

Bihar elkartzekoak dira Debabarrena eta inguruko bikiak eguna jai giroan emateko. Untzagan batu eta San Andres elizan meza entzun eta gero, taldeko argazkia atera eta txikiteoan ibiliko dira bazkaltzeko ordura arte.



### Garraio publikoa?

**G**arraio publikoaren egoera tamalgarria da, hori da autoa erabiltzearen arazoia". Iritzi pertsonal bat da, orain dela gutxi aldizkari batean irakurle anonimo baten plazaratutakoa. Eta ezta baidarako abiapuntua izan daitekeela pentsatu genuen. Lagun artean, behintzat, hari horri tiraka hasi ginen hortaz berba egiten.

Asko gara ahal den neurrian autoa erabili beharrean garraio publikoaren alde egiten dugunak, baina "ahal den neurrian" esan behar dugu, askotan nahi eta ezin ibiltzen garalako, halabeharrez.

Lanera joateko beste herri- ren batera edo hiriburura desplazatu behar dugunean, aukera pertsonala edo zorte kontua izaten da autoa hartzeko premiarik ez izatearena. Zorte kontua diot, batzuentzat ez delako aukera erreala izaten: zein herritan bizi zaren, lan ordutegia... faktore askok baldintzatzen du momentuko erabakia, eta denak ez dira norbere filosofia edo idealen arabera izaten.

Kontrolak, puntu famatuak, isunak, koste ekonomikoak... birritan pentsatu behar izaten dugu askok zelan desplazatu-ko garen inguruko herriren batera parranda giroan murgiltzeko ere.

Ez nator kexa poltsa batekin, baina... Pentsa: Goizaldeko 5ak dira, nekatuta, eta lagun arteko parranda bukatutzat emateko ordu aproposa gaurkoz. Ez dugu autobusik eta trenik etxera itzultzeko hemendik hiru ordura arte. Taxi geltokian ez dago inor, eta Gipuzkoako herri "guztiak" kubritzen omen dituen taxi zerbitzu berriak jai hartu omen du, ezin baitigute zerbitzua bermatu. Heldu gara azkenean etxera, 9.00ak jota dira, eta garraio publikoaren alde egin dugu. Zeren truke baina? Lagunak bota du berriz: "Esan dizuet, hurrengo batean kotxean ez bada ez gatzoz berriro".

### Izaro Aulestiarte

(KAZETARIA)

## Antzinaroko zazpi miragarriak ikasgai

**K**utxa ikasgelak, Ikasten-ekin batera, aste honetan ekin dio 'Antzinaroko 7 miragarriak' izenburuko ikastaroari. Ikastaroak datorren astean jarraipena izango du, hilaren 8an eta 10ean (martitzen eta eguenean),

09.30etatik 12.30etara Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolan (Hezkuntza Esparruan). Ikastaroa Mari Jose Noain, Irungo Oiasso Museoko arkeologia lantaldeko kideak ematen dihardu eta izena eman dutenek Grezia, Egipto eta Babilonia, Antzinaroko 7 miragarriak hartu zituzten herrien inguruan gauza asko ikasteko aukera izango dute. Antzinaroko miragarriak Egiptoko piramideak, Alejandriako itsasargia, Rodaseko kolosoa, Babiloniako lorategi-zintzilikariak, Efesoko Ar-



Alejandriako itsasargia.

temisaren tenplua, Mausoloren hilobia Hali-carnason eta Olimpiako Zeusen irudia dira eta horietan sakontzeko aukera paregabea eskaintzen du ikastaroak.

Bestalde, bideokonferentzia zikloarekin jarraituz, eguenean, 11.30etan, Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolako 'San Andres' ikasgelan Jose M<sup>a</sup> Urkia EHUKO irakaslearen hitzaldia jarraitzeko aukera egongo da. Azken mendean medikuntzan gertatutako aurrerabide- etako batzuk azalduko ditu Urkiak.



Babiloniako lorategi-zintzilikariak.



Mausoloren hilobia.

ORAIN DELA

10 urte

1998-IV-3  
229. ZKIA.

Txaltxakua basarrixa botatzeko erabagixa hartu zeban Udalak.



Sindikatueta ordezkarixak lanorduak murriztiaren alde ziharduten.

- *Etxaba eta Bengoetxea palotarixak Euskadiko Klubean arazo hapeketa berezamatu zeban, lemeak ordezkarixeri 22-13 irabazi. Aurretik Euskadiko eta Gijaraoko hapeketa estandarutakak ziran ezantzar bisak.*
- *Juan San Martini alkarraketa ezin gentsogun Toribio Etxebarriaren "lexikariaren" aurkezpen eskitaldian Hondarribitik Eibarnera etorri zela aprobetxatu. Berak be "Euskararen astartak" kalera zeban.*
- *Teknikan hastenari jarraitu, udalak Txaltxakua basarrixa botatzeko erabagixa hartu zeban. Hala amaitu zara gure herriaren izan dan basarri murriztuko botan historixia, sasai botan appiklo mendia izan zittama.*
- *ELA eta LAB sindikatok 35 orduko lanordutak ezartziaren aldeko jarrera erakutsi zeban. Bitarra lanordutak aldeko jarrera eskatu zatsen Udalarari eta gizaritz soldataren inguruko proposametak aurkeztu.*

## Liburutegia gaurtik aurrera zabalik

Azken asteotan itxita egon eta gero, Juan San Martin Liburutegiak atek gaur zabaldu ditu, behin liburutegia handitzeko lanak amaituta. Aurreikusita zegoen epean bueltatuko da betiko martxara liburutegia. Apirilaren 15ean hasi eta apirilaren 26ra arte hainbat ekitaldi garatuko dira Portalean eta liburutegian: programarekin hasteko olerki emanaldia eskainiko du Antzerki Maitaleak taldeak hilaren 15ean, 19.00etatik aurrera. Ernesto Barrutia, Maite Lorenzo eta Eduardo Falces aktoreek Quevedo, Becquer,



EKHI BELAR

García Lorca eta beste egile batzuen poemak eskainiko dituzte. Hilaren 23an, berriz, Juan San Martinen olerkiak eskainiko dituzte Iñaki Aldekoak eta Felipe Juaristik. Hurrengo egunean, 'Familiak ere kontatzen du' izenburupean, Umeen Liburutegian 3-5 urte bitarteko umeei zuzendutako saioa egongo da. Eta apirilaren 26an, Kandelaren Argipean programaren barruan, Begoña Gómezek ipuin kontalari saioa eskainiko du.

## Euskarazko Film Laburren Zirkuitua abian



TOPAGINEA

Topagunea Euskara Elkarrekin Federazioak Euskarazko Film Laburren Zirkuituaren bosgarren edizioa aurkeztu berri du. Zirkuituaren eskaintza hamar laneko 38 emanaldik osatzen dute eta horietatik, erdiak baino gehiago egile berrienak dira. Izan ere, antolatzaileek aurtan apustu berezia egin dute egile eta formatu berrien alde. Ondorioz, zirkuituan 'beteranoak'

diren Koldo Almandozen eta Iñigo Kintanaren lanekin batera, bidea egiten hasi diren Gutzane Agirre, Mikel Alvarez eta Asier Mendoza, eta bideo-sorkuntzan esperimentatzen dabiren Logela Multimedia taldea ere gonbidatu dituzte aurtengoan. Gainera, etorkizunean etor daitekeenaren adierazgarri, Topaguneak antolatzen duen Euskal Herriko Ikus-Entzunezkoen Rallyaren hiru edizioetan saritutako lan batzuk ere ikusteko aukera izango da. Gazteei zuzendutako lehiaketa horretan, ikus-entzunezko lan bat hamar ordutan grabatu, editatu eta aurkezteko erronka proposatzen zaie parte hartzaileei.





*Askotan, nahiguria jaitxi egitten darian eta jarduera sexuala beherantz doianian, askok kanpoko elementuetara jotzen dabe nahigura sexual hori igotzeko asmuarekin. Kanpoko elementu horrek estimulante sexualak edo afrodisiakak dira. Beste askotan, nahigura falta izan biharrian, kuriositate gauzia da bakarrik, eguneroko praktika sexualari gehitzen jakozen barrittasunak. Gizakixaren historian*

*gaittasun afrodisiakak zittuzten produktu asko proposatu dira. Edozeiñek erabili ahal dittuan estimulante asko dagoz eta talde bitan banatzen dira nagusiki: afrodisiako exogenuak eta afrodisiako endogenuak. Oin dala 10 urte gizartian eztanda izugarrixa sortu eban produktu bat kaleratu zan: Viagra. Pilula urdiñak sekulako arrakastia eduki eban mundu osuan eta askoren ezker onak jaso dittu. Bere erabilleria eragingarrixa da disfuntziño zutikorren aurrian eta harreman sexual bat baiño gehixago salbatu dau, eta igual hori baiño zeozer gehixago be.*



### **Eduardo Palacios** 34 urte, bihargiña

Beste aukerarik ez dakanak erabili egin biharko dau eta ondo egitten dabe. Halanda be, bakoxtak nahi daben erabilpena egingo dau, bakoxtak ikusiko dau estimulantiak biharra dakan ala ez. Ni hor ez naiz sartzen, estimulantiak erabiltzia edo ez bakoxtan esku dago.



### **Gemma Carracedo** 22 urte, langabia

Ba neri oso ondo begittantzen jata. Jendia holako gauzetara zabalik badago, ba oso ondo. Gaiñera, pertsona nagusixek erlaziñuak edukitzia nahi badabe nik oso ondo ikusten dot Viagra eta antzekuak erabiltzia. Olgetan ibilli bihar dala uste dot.



### **Juan Antonio García** 73 urte, jubilaia

Gaur egunian ikusten diran gauzak ikusitta ez dot bape txarto ikusten. Bakoxtak nahi dabena egittia daka beran harreman sexualeskin, eta horren biharra badake, ondo ikusten dot estimulatzeko zeozer erabiltzia. Nik iñoiz erabili izan dot, baiña kon-tuan hartu 73 urte ditudala (barriak).



### **Guiomar Agote** 33 urte, psikologua

Nik oso ondo ikusten dot. Holan, gauzia dibertigarrixa izango zan behintzat. Gaiñera, batzuk ezin badi-tue harreman sexualak eduki, ondo ikusten dot estimulantiak erabilpena. Orokorrian ondo daguala begittantzen jata, erabilpen ona dala uste dot.

*Zelan ikusten dozu  
sexu harremanetarako  
zeozer hartzia?*

**EGOITZA NAGUSIA**  
Bidebarrieta 20 - behea

**M FUNERARIA MUGICA**

Tanatorio Crematorio del  
Bajo y Alto Deba

- Tanatorioa eta Errausketa labea  
Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- Euskal Herri osoko ospitaletan hartzen zaitugu
- Nazio eta Nazioarteko trasladoak

**Mugica Ehorzketa**  
Funeuskadi taldea

**TELEFONOA (24 ORDU)**  
**943 201 951**

**Helbide berria**

**URKIZU PASEALEKUA, 13**  
Orbeako dorreetako  
1. solairua

**EIBAR**

**CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA**

☎ 943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04

1 Kardiologia	10 Radiologia
2 Zirugia	11 Traumatologia
3 Dermatologia	12 Barne Medikuntza
4 Dietetika eta Nutrizioa	13 Alergologia
5 Análisi Klinikoak	14 Koloproktologia
6 Ortodontzia	15 Urologia
7 Otorrinolaringologia	16 Estetika unitatea
8 Pediatria	17 Erizaintza
9 Psikiatria	

Datorren astian operiarekin gozatzeko aukera paregabia izango dogu herrixan bertan: Giuseppe Verdiren 'La Traviata' ezagunaren emanaldi bi eskinduko ditu Nueva Lírca konpainiak, eguenian lehelengua eta barixakuan bigarrena. Hasiara batian 'Carmen' operia programata eguan, baiña arazo batzuk bittartian agertu eta azken orduko aldaketia egin bihar izan dabe programaziñuan. Andoni Barañano tenoriak eta Helena Gallardo sopranoak XIX. mende erdialdeko Parisera erungo dabe publikua, Violeta eta Alfredoren arteko maittasun historixia taula gaiñian representata.



# Coliseoa 'La Traviata'-ren doiñura

**H**iru aktotan banatutako operia da 'La Traviata', Verdiren lanik ezagunetakua. 1853ko martxuaren 6xan Venezian estrenatu zanetik gaur egunerarte mundu osoko antzokirik inportantienetako kartelera guztietan egon dan obria datorren astian Coliseoan ikusteko moduan izango da, eguenian eta barixakuan, egun bixetan 20.30xetatik aurrera. Sarreak aste honetan bertan, funziñua konfirmatu eta segiduan ipiñi dittue 20 eurotan salgai, betiko bidieri jarraituta: internet bidez, [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net) helbidian, Telekutxa zerbitzuan eta baita Coliseoko leihatillan be (gaur bertan eta domekan, Eibar taldiaren dokumentala eskinduko dabenez, taki-

lla zabalik egongo da eta baita martitzean be).

## Nueva Lírca konpainia

Alexandre Dumas-ek idatzitako 'La Dame aux Camélias' lanian oiñarritutako lana da 'La Traviata', Piave-ren letrarekin. Violeta, Pariseko korteko kortesania, Alfredo Germontekin maitemindu eta harekin bizitzera doia, baiña Alfredoren aittak semia "bide onera" bueltatzeko ahalegiña egingo dau eta hortik abiatuko da historixia guztia.

Nueva Lírca konpainia 1990. urtian sortu zan, abeslari gaztien aldeko apustu garbixa eginda, mailla internazionalako kantu lehiaketetan irabazle izan diran abeslarixe-

ri opera eta zarzuelaren munduan tartia eskintzeko, eta ez jakue damutu. Artisten zerrrendari begiratzen badetsagu goi-goixan daguazen izenak topatu geinkez: Carmen Aparicio, Helena Gallardo bera, Silvina Arroyo, Guillermo Orozco, Angel Cárdenas, Stanislas Arráez, Alberto Arrabal, Vicente Lacárcel, Juan Pedro García Marques, Rodrigo Esteve... punta-puntako artistak. Eskintzen dittuen obrak, barriz, oso harrera ona izaten daben produkziño ikusgarrixak dira: 'Tosca', 'Madame Butterfly', 'La Boheme', 'Lucia di Mammormoor', 'La Traviata', 'Don Pasquale'...

## Goi maillako abeslarixak

Eibarren eskinduko daben ikuskizunian musika munduan ibilbide oparua daroiaten tenoria eta sopranoa egongo dira reparto guztiaren buruan: Andoni Barañano eta Helena Gallardo. Barañano bilbotarrak Zuzenbide ikasketak amaituta heldu zetsazen musika ikasketeri Bilboko Goi Maillako Kontserbatorixua eta 2001. urterako lehen tenoria zan Maggio Musicale Fiorentino (Florentzia, Italia) dalakuan. Harrezkero opera munduko personaje ezaguneri bere ahotsa ipiñi detse munduko eszenarixio inportantienetan. Eibarko publikua ezagutzen dau, 2006xan 'Don Pasquale' lanian Ernestoren personajia interpretatu eban-eta. 'La Traviata'-ko protagonistaren rola be oso ezaguna da berandako, aurten bertan Madrilgo Antzokixan bizia emon detsa-eta.





Aldamenian izango daben Helena Gallardok, barriz, musikia eta pianua ikasi zittuan Getafeko Musika Konserbatorixo Profesionalian eta goi maillako maisuak izan ditu aldamenian. 27 urterekin mundu maillako lehiaketa inportantietan sarixak eskuratu ditu. Operan eta zarzuelan, barriz, titulo ezaguneko ixa lan guztietan hartu izan dau parte eta estaduko antzoki ezagun guztietan egin dau biharra.

#### 'Carmen' bertan behera

'La Traviata' lana San Petersburgoko Operak eskindu bihar eban 'Carmen' ordezkatzera dator. Aste honetan bertan, emanaldirako egun gitxi falta zirela, Districtur enpresako arduradunak "iruzur baten biktima" izan dirala salatu eta Espainian taldiak egin bihar eban bira bertan behera lagatzeko erabagixa hartu bihar izan dabe. Enpresak ohar baten bittartez argittu nahi izan dabenez, "Victor Bockmann jaunak iruzur egin desku. Berakin siñatu genduan kontratuaren arabera, martxua eta apirilla bittartian Espainiatik bira egingo eban Rusiako goi-maillako konpainia

### Sarrerak salgai daude, 20 eurotan. [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net) helbidean. Coliseoko lehiatilan ere erosi daitezke gaur, domekan eta martitzenean

ekartzeko konpromisua hartu eban. E-maillez berarekin izan genduan azken komunikaziñuan, martxuaren 25ian Espainiara ailegauko zirala ziñuan, taldiak martxuaren 27xan Jaenen egin bihar eban debuta prepartatzeko eta European 100dik gora emanaldi eskindu zittuela. Baiña egunian bertan aktuaziñua bertan behera laga bihar izan genduan, autobusarekin arazo bat euki ebelako eta, beraz, berandu ailegauko ziralako. Baiña hurrengo egunian Rusiako konpainia izan barik Bulgariakua zala jakin genduan eta konpainiako kidiak, barriz, 'amateur' maillara be ez ziran ailegatzen eta lehelengo aktuaren ondoren ikuskizuna eten bihar izan genduan eta bira bertan behera lagatzia erabagi genduan. Egoera

honekin sorpresia hartu dogun lehelenguak geu gara eta salaketa ipiñi dogu, iruzurragaittik".

#### Kalidadezko akustiklia

Estadu maillako bira jaustiarekin batera, Eibarko funziñua be desagertu zan eta Udalak ahalegin berezixa egin dau egun berian beste opera bat eskindu ahal izateko. Azkenian, funziño bat ez, bi eskinduko dira Coliseoan.

Maria Jose Telleria Kultura ziñegotzixak esan deskunez, "operari bultzada emoteko ahalegiñetan gabiz eta aurretik be egiñ izan dittugu saiakera batzuk, bestiak beste operaren gaiñeko hitzaldixak-eta antolatuta. Egixa esan, Coliseoak oso kondiziño onak dakaz akustikiari begirata, Iturriagagoitiarrak eta beste batzuk baieztatu daben moduan". Gauzak holan, dana prest dago opera ikuskizun paregabiarekin gozatzeko. Eta lana ondo ikasitta eruan nahi dabenandako, barriz, gure webgunian ([www.etakitto.com](http://www.etakitto.com)) libreto osua deskargatzeko moduan ipiñi dogu, lan osuarekin.



Violeta eta Alfredoren arteko maittasunak hamaika egoera ekarriko ditte atzetik Coliseora gerturatzen dan jentia ikusiko daben moduan.

Herri Irratia Eibar  
Loyola Media

S.D. EIBAR - C.D. ALAVES

Jarraitu partidua:  
Berja Rodríguez  
eta Herri Irratiko  
kiroletako taldearekin

Apirilak 5 zapatua, 18.30etan

90.7 Fm

# teen-ajeak



*Lorea Arakistain Euskadi Irratiko kazetariak hitzaldia eman du 'Umi Encounter 2008' jardumaldiaren barruan. Informatikak kazetaritzari eskainitako abantailak iran rituen hizpide.*

## “Informatika denentzat da interesgarria”

**- Nolako harremana daukate Informatikak eta kazetaritzak munduak?**

Informatikak, nahi barik ere, beste esparruetan eragina izaten du eta hala gertatzen da kazetaritzaren kasuan ere.

**- Zertan lgartzen da eragin hori?**

Teknologia berak aldatzen doaz eta, eurekin batera, lan egiteko moduak. Grabagailuarekin hasi eta hortik minidiskera saltoa egin genuen, gero beste pauso bat aurrerago joateko. Irratian, adibidez, informatika menperatu behar da estudioan jardun ahal izateko edo, beste komunikabi-

de batzuetan webgune bat kudeatzea egokitu daiteke...

**- Etenbarik prestatzen jardun behar da, orduan.**

Ideala lan egiten den tokian bertan berrikuntza guztietaz arduratzeko saila egotea litzateke, baina normalean norbera arduratu behar da.

**- Uni Encounter moduko Jardunaldiak Informatikarientzat ez ezik denentzat interesgarriak dira?**

Nik uste du denentzat interesgarriak direla, ia denok ordenagailua daukagulako eta zenbat eta gehiago jakin, orduan eta etekin handiagoa aterako diogulako.

# Lokalak legalizazio programa berria

**G**azteek lokalak izateko oso zabaldua dago gaur egun herrian. Koadrilak bertan biltzen dira taberna, parke edo bestelakoetatik kanpo. Euren txokoa da, jolaserako, berba egiteko edo filmeak ikusteko erabiltzen dituzte eta, ondorioz, euren bigarren etxea bezalakoak dira lokal hauek. Askorentzat lehena.

Lokalek, askotan, ez dute behar diren segurtasun neurriak betetzen. Hauetariko

asko aurretik abandonatutako lokalak dira, zaharkituak eta arrisku egoerak sortuzazketenak. Bestetik, segurtasun falta horrek eta lokal hauetako gazteek sortzen dituzten zaratek inguruko bizilagunen kezak sortarazten dituzte. Guzti hori ekiditeko asmoz, Udalak lokal hauek legalizatzeko, euren kontrola eramateko, eta barruko eta kanpokoen segurtasuna bermatzeko programa bat jarri du martxan.



## HOROSKOPOA

### ARIES

Zure itxura ez da batera ona. Begizuloak, aurpegi triste... zerbait gertatzen zaizu eta besteei izkutatzeko diezu. Hori ez da bidea. Dazkazun arazo guztiak kanpora atera eta besteengan konfidantza gehiago izan beharko zenuke.

### TAURUS

Ederra marka zurea, argazki gutzietan aurpegi xeblearekin azaltzen zara, nola egiten duzu? Hurrengo batean, ezaiozu argazkilariori abisatzeko eta zuk, faborez, aurpegi egokia ipini eta egon zaitzez geldirik momentu batez.

### GEMINI

Ezkontzeko gogo sartuko zaizu datorren astean. Berdin da bikotea edukitzea edo ez, kosta ala kosta ezkontza jantzia eranstea nahi izango duzu, opariak jaso eta, noski, bidaiatu. Zein erromantikoa zaren Gemini maitea!

### CANCER

Laguntza ekonomiko bat jasoko duzu datorren astean. Azkenaldian poltsikoak nahiko hutsik dituzu, horrela, hainbat zulotxo tapatzeko aukera izango duzu. Ez ezazu alferrik galdu laguntza hori eta erosi ezazu diru-zorro bat.

### LEO

Asteartean lurrera begira joan beharko zara, bestela erortzeko arriskua izango duzu. Gainera, behera begira joaten bazara, konfaturako zara zapata berriak erosi behar dituzula, daukazunak oso zaharkituta daude!

### VIRGO

Mundu osoa zure kontra dagoela dirudi; baina ez, zure kontua da hori, asmakizun hutsa. Zure paranoia bat. Jendeak gauza asko dituzte egiteko zuri bizitza izorratzen denbora galtzen ibili beharrean. Ez zara hain garrantzitsua.

### LIBRA

Zure logela txunkuntzeko ordua heldu da. Zerri-toki bat dirudi, dena lurrean botata, ohea egin gabe, zakarrontzia ere uztu behar duzu! Agian, zabor guzti horren artean gauza baliagarriren bat aurkitu duzu.

### SCORPIUS

Hainbeste eguraldi aldaketarekin zorrotza zabilta. Txarrena da azkenean gaixotu egingo zarela, hotzetik berotasunera hain denbora gutxian pasatzea ez da batera ona osasunarentzat. Onena etxean geratzea.

### SAGITTARIUS

Nola egiten duzu beti hain ederra egoteko? Deabruarekin pakturen bat egin duzu? Ingurukoek inbidiaz begiratzen dizute, gau txarra pasata ere ez duzulako aurpegi txarrik. Zelako zortea daukazun. Gorde ondo sekretua!

### CAPRICORNIUS

Barrea errez irtengo zaizu aste honetan. Tontakeri txikienarekin ere barregurea izango duzu. Ona da barre egitea, baina momentu serioetan barregurea aguantatu beharra oso zaila da. Tripakomina izango duzu.

### AQUARIUS

Astelehena iritsi bezain pronto, asteburua heltzeko irrikitan egongo zara. Ez da batera aste ona izango zuretzat, gogo gutxiarekin, ezkor, umore txarrez egongo zara. Gutxienez, asteburuan oso ondo pasatuko duzu lagun artean.

### PISCIS

Presaka ibiltzea ez da oso gomen-dagarria. Zita guztietara berandu heltzen zara, gauzak ahazten dituzu, asko kantsatzen zara... Egia esan, gaur eguneko gizartea prisa handiarekin bizi da, ezer gutxi egin dezakezu horren aurrean.

# atzeko martxan

## Lokalentzat dirulaguntzak

Ekimen berri honen aurretik antzerako beste saiakera batzuk egin zituen Udalak, baina porrot egin zuten. Orain, oinarriak moldatu dira malguagoak eta eskuraerrazagoak bihurtuz, hori dena lokal hauen legalizazioa errazteko asmoz.

Berritasunen artean legalizatze proiektu osoaren ordaintetarena dago, izan ere, orain arte erdia ordaintzen zuen Udalak. Bestetik, euren funtzionamendu gastuak ordaintzeko 60 euro jasoko ditu planean parte hartzen duen lokal bakoitzak hilean.

Lokalak legalizatzeko hainbat neurri hartu behar dituzte gazteek. Horrela, zaraten murrizketa araudira moldatu beharko dute txokoa eta segurtasun neurriak hartu beharko dituzte.



**Lokalak legalizatzeko, besteak beste, zaraten murrizketarako eta segurtasunerako neurriak hartu beharko dituzte.**

## Arazoak lokalak moldatzeko

Nahiz eta Udaleko ardura-dunek esan legalizazio eta erregularizazio prozesua ez dela korapilatsua izango, gazteek ez dute berdin pentsatzen. Izan ere, Karlos Elgezuan lokala duen gazte talde batek uste du arazoak izango dituztela euren txokoa arautegi horretara moldatzeko, "gure lokala alokairuan lortu dugu, beraz, lokalaren jabearekin nego-

ziatu beharko genuke guzti hori. Gainera, diru-laguntza proiektua idazteagaitik soilik lortzen dugu, ez obra egiteagaitik, eta hori da garestiena".

Mari Jose Telleria Euskara eta Kultura zinegotziak, bestetik, aipatzen du lokalen legalizazioa eta erregularizazioa lortuz gero, kultura sailak hainbat ekimen aurrera eraman ahal izango dituela lokalen artean.



## Ciberbullyng

Zer da, baina? Internet, mugikorrek, bideokontsolak edo informaziorako beste edozein teknologia neska edo mutil bat jazarri, umiliatu edo mintzeko erabiltzen denean dihardugu ciberbullyng-az. Esaterako: mezu iraingarriekin mugikorretik mehatxatuz, web orri bat sortuz edo erabiliz ikaskide baten izena zikintzeko, iruzkin iraingarriak lagaz foro edo txatetan, fotomuntaia umiliagarriak egin ez eta sarean zabalduz... Jazarpenean dabilen neska edo mutila erasotzaile bat besterik ez da eta, aldi berean, beste kide batzuen laguntza izan dezake, azken hauek konplize bihurtuz. Batzuetan izan daiteke halako jarrerak hartzea bati min egin diotelako, edo berari izan barik lagun bati; horrelakoetan, bakoitzak justizia bere kabuz hartzeak ez darama inora eta arazo handiak sor ditzake, dugula uste dugun anonimatoak ez baitu asko iraungo. Izan daitezke horrelako jazarpenean ondo pasatzeko modua aurkitzen dutenak; eta baita, behin guztiz haserretuta, proportziorik gabeko moduan erantzuten dutenak horrelako medioak erabiliz. Kasu guztietan ere, beti pentsatu behar dugu eta, aldi berean, gure barruan sentitu mezuak jaso behar duenaren, Interneten bere burua ikusi behar duen edo jazarpenean sufritu behar duenaren mina. Ez da inoiz ahaztu behar, edozein delarik ere zure jokaeraren zergatia, hori delitua dela eta boterea erabiltzen diharduzula, bortxakerai era bat.

Txarto sentitzen bazara mezuak edo beste edozer bidaltzen dizutelako, kontu egiezu zure gurasoei, eurek lagunduko dizute-eta. Modu horretan bakarrik lortuko duzu halako egoera batekin amaitzea.

**Jalone Azkue**  
(DROGOMENPEKOTASUN  
TEKNIKARIA)

## Uni Encounter-aren IV. edizioa

**IES Uni Elbar-Ermuak antolatzen duen Uni Encounter-aren IV. edizioa egingo da gaurtik aurrera apirilaren 11ra arte.** Urtero bezala Unik Ermuan duen egoitzan egingo dira ekitaldi ezberdinak programa zabal baten barruan. Horrela, laugarren aldiz antolatuko dira teknologia berrien inguruko jardunaldi informatiko hauek.

Gaur 13.00ean eman dio hasiera aurten Uni Encounter-ari Lorea Arakistainek (Euskadi Irratiko kazetaria) 'Informatika eta kazetaritza' hitzaldiarekin. Bihar software librearen eguna ospatuko da eta bertan hiru hitzaldi eskainiko dira: Iratxe Esnaolak kultura teknologikoaz hitz egingo du 16.00etatik 17.15etara,

Jon Urionaguenak 'La Criptografía como mecanismo de seguridad en Internet' hitzaldia eskainiko du 17.30etan eta Mikel Olasagasti euskal webguneen arazoan gainean arituko da 18.45etan.

## Jokoen eguna

Web 2.5-az hitz egingo du Gorka Juliok apirilaren 9an 16.00etan. Egun berean, F. Javier Dieguez zerbitzuetako mailen neurketa eta gestioaz arituko da 17.30etan eta RFID teknologia jorrotuko du Iratxe Ugaldek 19.00etan. Segurtasun egunean, bestetik, PYME-etako segurtasun politiken gainean egingo du berba Iñigo



Losadak 16.00etan, dispositibo mugikorren berrikuntzak jorrotuko ditu Svet Ivanchevek 17.30etan eta VolPari buruz egingo du berba 18.45etan Pablo Garaizarrek.

Azken egunean jolas egiteko unea iritsiko da. Izan ere, apirilaren 11n, jokoen egunean, 16.00etatik 20.00etara Guitar Hero eta Counter Strike txapelketak egingo dira.

*Ehiza eta kirol-jaurtiketarako kirol armen enpresa ekoizle eta inportatzaile-banatzaileak batzen dituen erakundea da Armagintza Elkartea. Armagintzarekin duen lotura handia izanda, Eibarren du bere egoitza erakunde honek. Marta Gomez da elkarteko gerentea eta gu berarekin egon gara.*

**- Zela da Armagintza Elkartearen funtzioa?**

Azokak antolatzen ditugu, merkataritza misioak izaten ditugu eta abar. Sektoreak dituen eskabideak administrazioarekin bideratzen dituen erakunde bat gara. Gainera, lan-formakuntza planak ere eskaintzen ditugu eta gure esku dagoen edozer gauza egiteko prest gaude.

**- Azken hilabete bitan hainbat nazioarteko azoka egin dira. Zeintzuk?**

Mundu mailan garrantzitsuenetariokoak diren azoka bi egin dira azkenaldian. Bata, Estatu Batuetan egiten den 'Shot Show-a' da. Azoka hau otsailaren 2tik 5era egin zen Las Vegasen eta zazpi ordezkari espainiar egon ziren bertan, Eibarren egoitza duen Armagintza Elkartea eta Aguirre y Aranzabal arma enpresa barne. Esan behar da enpresa europarren partehartzea txikiagoa izan dela aurten, izan ere, euroak dolarraren aurrean duen sendotasunak produktu europearrak Estatu Batuetan saltzea zaildu du. Bestea, Alemanian egiten den IWA azoka da eta martxoaren 14tik 17ra egin zen Nürenbergen. Bertan mundu osoko enpresa banatzaileak bildu ziren eta hauen artean eibarko sei ordezkari egon ziren. Bestalde, Espainiako ehiza eta tiroko azokarik garrantzitsuenak egin zen martxoaren 7tik 9ra Madril: Venatoria-Fitac. Bertan Eibarko hamar bat enpresek hartu zuten parte.

**- Zertarako antolatzen dira horrelako azokak?**

Azoka hauek, ia bere osotasunean, profesionalak dira. Hau da, ez dute izatera publikoa eta sektore profesionalek zuzenduta. Azokak banatzaile ezberdinekin kontaktuan jartzeko balio izaten dute eta hori oso garrantzitsua da hemengo enpresentzat, izan ere, Eibar eta inguruko enpresak esportatzaileak dira (hemen egiten diren eskopeten %80 esportatu egiten da). Hala ere, herrialde batzuetara arma horiek



## “Armagintzak aurrera jarraituko du Eibarren”

bidaltzea debekatuta dagoenez, zailtasunak aurkitzen dituzte eta ez dira horrelako azokak antolatzen bertan.

**- Armen araudia aldatu egin zuten orain dela hainbat hilabete. Zertan datza, zehazki, aldaketa horrek?**

Espainiako gobernuak Nazio Batuen Erakundearekin su-arma, bere pieza eta osagaiak, eta munizioen fabrikazio eta trafiko ez-zilegiaren aurka protokoloa sinatu zuen, eta horren ondorioa da abenduaren 28ko legea. Araudi berri honek lizentziara jartzen du kirol-armen esportazioa, horrela, armak atzerrian saltzeko ministerioari baimena eskatu behar diote enpresa esportatzaileek. Horrek administrazio zama handia ekartzen die enpresei, izan ere, hauek oso txikiak dira (hamar langile baino gutxiagigoko enpresak dira gehienak). Gainera, itzarote aldiak luzeagoak dira eta, ondorioz, bizkortasuna galtzen dute enpresek, lizentzia lortzeko epea ez delako bi hilabete baino gutxiagoa.

**- Zergatik hartu du administrazioak erabaki hau?**

Barne-joera bat da eta ezin da esan Espainiako administrazioaren errua dela bere osotasunean. Ia mundu osoan

**“Eibarko eskopetak munduko onenak dira, prezio eta kalitateari begira”**

ezarri den joera bat da. Gainera, esan behar da honelako arauak ezarri ez dituzten herrialdeak gerrarako armak saltzen dituztela.

**- Horrelako erabakiek nolako mina egiten diote armagintzari?**

Kirol-armak sortzen dituztenei kaltea handia egiten die, izan ere, zaku berean sartzen dituzte arma hauek eta gerrarako armak.

**- Nolako pisua dauka armagintzak Eibarren gaur egun?**

Egia esan pisu gutxi dauka gaur egun. Udalak lagundu egiten dio sektore honi tradizioarekiko sentibera delako, baina armagintzak industrian duen pisua txikia da. Hala ere, Eibarren egiten diren eskopetak oso onak dira salneurria eta kalitatea alderatuz gero, esan daiteke munduko onenak direla, ezer exageratu gabe. Sektorean jarraitzen dutenek esperientzia handia dute eta baita gaitasun handia ere. Hemengo armak eskuz egiten dira eta horrek armen ekoizpena murrizten du, hala ere, sektoreak aurrera jarraituko duela uste dut.

**- Zeintzuk dira herriko armagintza enpresen merkatu nagusienak?**

Espainia, Estatu Batuak eta Europar Batasuneko herrialdeak, ordena horretan.

**- Zela berezitasun ditu hemengo armagintza industriak?**

Hemen ehizarako eskopetak egiten dira gehien bat, eta baita errifleak ere. Euren berezitasuna eskuz egiten direla da, artisauen lanak dira.

...eta kitto! eta drogeteniturri aldizkarien  
**EZKONTZEN GEHIGARRIA**

Honakoa da Eibar eta Ermuko aldizkariok  
 hilabete honetan argitaratu dugun  
*Ezkontzen Gehigarria.*

Eibar, Ermua eta Mallabian banatuko dugu  
 ale berezi hau. 9.750 ale kaleratuko dira,  
 30.000 irakurle ingururendako.

19. zenbakia 2008ko udaberriko gehigarria  
 PUBLIZITATEA: Itziar ALBIZU eta Belen ULAZIA.  
 DISEINUA ETA MAKETAZIOA: Jose Luis GOROSTEGI.  
 TESTUAK: Silbia HERNANDEZ. TIRADA: 9.750 ale. Telefo-  
 noa. 943 20 67 76 Faxa. 943 20 28 72  
 E-maila. [publizitatea@etakitto.com](mailto:publizitatea@etakitto.com)

# Ikusika ez dena jaztearen plazerra

**K**anpoko itxurari garrantzi handia ematen zaio ezkontza egunean, eta ez da harritzekoa, begirada guztiak ezkongaei begira egongo dira-eta. Baina hainbeste ikusiko ez diren jantziak asko zaintzen dira eta barruko erropekin lan egiten duten etxeek ondo dakite hori, ezkongaiantzat hamaika aukera eskaintzen dute-eta. Edozein modutan ere, joera bi nagusitzen dira:

- Enkaje eta bordatuak: tul eta mikrofibren gainean lora-itxurako marrazkiak egiten dituzten enkaje eta bordatuak asko erabiltzen dira gaur egun. Transparentzia eta emakumearen gorputza apaintzeko baliabide anitz erabiltzen dituzte disenatzaileek.

- Bularretako, kulero eta tanga sinplegoek gero eta ja-


rraitzaile gehiago daukate, batez ere josturarik gabekoek. Koloreari begira, zuriak jaun eta jabe izaten jarraitzen du, bakarrik edo kontrastea egiten duten beste kolore batzuekin konbinatuta. Ausartenek beltza aukeratzen omen dute.

Gauean, berriz, sentsualitatez gainezka egiten duten kamisoi, pikardia eta pijamak dira protagonista. Oraindik ere kamisoiak pieza biko konjuntuak baino gehiago aukeratzen dira eta, barruko erropekin gertatzen den bezala, zuri kolorea da arrakastatsuen.

Batez ere emakumeen lantzeriari dagozkion joerak dira horiek, baina gizonezkoak barrutik jazteko erropetan ere ikaragarri zabaldu da eskaintza eta, horri esker, betiketok aldendu nahi direnei ez zaie faltako non aukeratu.



Senargaiak eta ezkontzako gonbidatuak janzteko prestatuta gaude



**Valenciaga**

ZULOAGATARREN, 1 (EIBAR)



Telefona: 943 20 22 33

EZKONTZA  
EGUNERAKO  
LENTZERIA  
BEREZIA

BAITA  
BESTE  
EGUNETARAKO  
ERE

**TXUKUNA**  
LENTZERIA - NERTZERIA



EULOGIO GARATE, 1 TEL. 943 82 13 08

*Modas  
Leti*

Julian Etxeberria,  
17



Tel.  
943 20 24 31

*Edozein  
ekitaldirako  
jantziak*

**RAMOS**  
JANTZIDENDA



**GIZONENAKO  
MODA**

Zubiaurre, 2 Plaza Zaharra, z/g  
943 170 106 943 191 566  
48260 ERMUA 20820 DEBA

**AZPIRI** *ezkontzetarako  
trajeetan espezialistak*

*senargai, aitabitxi  
eta gonbidatuentzat  
berreziki egokitua*

50 urte egunetik  
egunera hobetzen

Salmenta:  
Arragueta, 4-3  
Erakusketa:  
Arikitza, 1  
Telefona:  
943 20 74 17  
EIBAR



**Inizita**

*Ezkontza egunean  
ezin hobeto  
jantzita egoten  
lagunduko dizugu*

**ARRAGUETA 9  
TEL. 943 12 71 06**



**ROCA** *Ezkontza egunerako  
guzfia... zure esku!*

F. CALBETON 16 - EIBAR - 943 20 80 06



**Angela**

Zubiaurre, 16  
ERMUA  
943 17 09 06



## Egun berezira bitxi bila

**E**maztegiak ezkontza egunean erabiliko dituen bitxiak bere estiloaren isla izango dira. Zorionez, gaur egun bitxitegietan aurki daitekeen aukera zabalari esker erosleri errezagoa egiten zaio gustuko zerbaite aurkitzea, merkeenekin



**MARRODAN**  
BITXITEGIA - ERLOJUGINTZA

1.000.000tik gora  
Emakume dira  
Munduan Antonelli  
Janzten dutenak

T. Etxebarria 24 20600 EIBAR  
Tel. 943 20 73 04

hasi eta garestienetara ailegatu arte oso zaila baita maitemintzeko moduko zerbaite ez aurkitzea. Soinekoarekin, orrazkerarekin eta makilajearekin batera, emaztegiaren edertasunari ukitu berezia emateko balio dute bitxiak eta, beraz, bakoitzaren ezaugarriekin bat egiten duen zerbaite aukeratzea oso garrantzitsua da. Hala ere, kasu guztietarako sinpletasunaren aldeko apustua egitea gomendatzen dute adituek, ez baita komeni bitxi oso deigarriek gainontzeko guztiari itzalik egitea. Gogoan izan, azken batean apaingarri bat gehiago baino ez dira. Horregatik, soinekoa edo orrazkera probatzera joatean, ahal izanez gero bitxiak ere eramatea ondo egoten da, zer nolako efektua lortuko den ikusten joateko. Baina beti ezin izaten da zein bitxi eramango den aukeratu, familia batzuetan belaunaldiz-belaunaldi erabiltzen doazen bitxiak egoten baitira, baina horrelakoetan bitxiak balio erantsia izaten du.

Lepokoarekin batera, belarritakoak izango dira gehien ikusiko diren bitxiak. Hala ere, horrek ez du esan nahi beste bitxirik eramateko aukerarik ez dagoenik. Erlojua jantzi ala ez, horren inguruko zalantza ugari izaten du askok. Adituen arabera, erloju oso berezia ez baldin bada, ezkontza egunean emaztegiak ez luke erlojurik jantzi beharko. Salbuespen gisa, oso finak diren erlojuak apaingarri modura egoki ikusten dituzte. Gizonezkoen kasua oso bestelakoa da: askotan konpromiso-oparitzat jasotako erlojua jaztea egokia eta oso gomendagarria dela diote. Hori bai, ahaztu plastikozko eta, batez ere, alarmadun erlojuekin.



**Senén**  
[www.joyeriasenen.com](http://www.joyeriasenen.com)

San Pelayo, 4 943 17 00 28




# K kareaga



Bidebarrieta, 10  
Tel. 943-208045



ORDAINTZEKO  
ERRAZTASUNAK



# Etxe berria apaintzen

**E**zkonberri askok bizimodu berria estrenatzeaz gain etxea ere estrenatzen dute. Antzina etxerako apaingarri eta osagarriak emakumezkoak ipintzen zituen, ezkontzarako 'dote' gisa: izarak, mantelak, sukaldarako trapaak... askotan eskuz bordatuta egoten ziren, gainera. Gaur egun dotearen kontu hori zaharkitua geratu da, baina, hala ere, etxerako beharrezkoak izaten dira aipatutakoak eta baita beste batzuk ere. Denen gaintik, baxerak garrantzi berezia hartzen du. Bikote askok opariz-errenda osatu eta dendaren bat aukeratzten dute, nahi duenak han eurek aukeratutako zerbait erosi eta oparitzeko. Baxeraren erabilgarritasuna albo batera laga barik, diseinuarekin lotutako hainbat detaile kontuan hartzea komeni izaten da, batez ere etxea apaintzeko erabiliko diren beste elementuekin konjuntatzea nahi baldin bada. Helburu hori bilatzen bada, mahaia nolakoa izango den, bistan edo ezkutuan gordeta egongo den, ontzi-garbigailua erabiltzeko



GADIFOT

ohitura dutenen kasuan horretarako egokia den, egunero edo bakarrik egun berezietan erabiltzeko izango den... begiratzea ez dago soberan.

Gehienetan baxerak 56 piezakoak izan ohi dira, baina batzuk pieza gehiagokoak izaten dira. Prezioa, berriz, asko aldatuko da, aukeratutako baxeraren kalitatearen eta beste hainbat ezaugarriaren arabera.

Horrez gain, estilo eta gustu guztieta-  
ra egokitzen diren hamaika detaile dago merkatuan, etxeari ukitu berezia eman ahal izateko. Nahi beste kolore, itxura eta materialez osatutako apaingarriz jositako daude dekorazioan adituak diren dendak eta han bertan beharra egiten dutenen aholkuak oso baliagarriak gerta dakizkie euren gustuarekin horrenbeste fidatzen ez direnei.

**fasprint**  
Inprimategia  
Ezkontza Gonbidapenak  
txartelak, gutunak, albaranak,  
fakturak, papergintza orokorra...  
Fasprintei@yahoo.es - Tel./Faxa: 943 20 16 13  
Ego Gain 11 ac - EIBAR

**solozabal estankoa**  
Torrekua, z/g  
Tel./Faxa: 943 17 07 33  
ERMUA

- ospakizunetarako puruak: ezkontzak, jaunartzeak, bataioak, urteurrenak...
- gonbidapenak
- gure puruak tenperatura eta hezetasun egoera ezinhobean gordetzen ditugu

**Iradi**  
San Juan 1  
Tel. 943 20 33 29

Bidebarrieta 1  
**Laumar**  
Tel. 943 20 16 26


**mari asun**  
LORADENDA 1 - JIMENA - 48 940 17 00 00

Birjiñape, 1  
Isasi, 16  
**Loradenda**  
943 20 88 47

# Krabelin

☎ 943 202 727 • FAXA 943 208 991

Arrate auzoa, z/g • 20600 EIBAR (Gipuzkoa)



**Krabelin**  
**HOTELA-JATETXEA**

2 suite jakuzziarekin  
4 gela hidromasajearekin  
Elbarrituentzat egokitutako gela

**WI-Fla doan eraikuntza osoan**

250 lagunentzako aretoa  
Era guztietako ospakizunak

Gela bikoitza (denboraldi ertaina): 60 €

Eguneko menua: 20 €

Karta: 36 €



**Lorategidun terraza,  
jangela bezala eta  
koktelarako leku aproposa.**



**A**zken urteotan gizonzkoen zuzendutako estetikak benetako iraultza bizitzen dihardu. Tradizioz emakumeei mugatuta egon diren produktu eta tratamendu asko gaur egun gizonzkoen normaltasun osoz eskaintzen zaizkie eta, horrelako egun berezian senargaiak aurpegi eta itxurarik ederrena erakutsi nahi izaten du. Gizonzkoen batzuk urte osoan estetika zentruetara joatera ohituta daude eta, horrelako kasuetan, normalena ezkontza egunaren aurretik ere lehendik ezagutzen den profesionalerengana jotzea izaten da. Bestela, ohiturarik ez dutenek badute non aukeratu.

Edozein kasutan ere, denboraz ibiltzea komenigarria izaten da. Hilabete aurretik, azala garbitu eta hidratatzeko tratamendua egitea aholkatzen dute. UVA izpiak jaso nahi izanez gero, sesioak gutxienez ezkontza eguna baino 3 aste lehenago hasi behar izaten dira. Eta, astebete lehenago, honakoak hartu behar dira kontuan: aste horretan UVA izpirik ez hartzea da



GADIFOT

egokiena, azalean gorritasunak eta bestelakoak saihesteko. Depilazioaren premia izanez gero, horretarako une egokia da azken aste hori. Manikura eta pedikura bezalakoak egiteko unerik egokiena ere bada. Ileapaindegira 4 bat egun lehenago joatea komeni da, ilea mozteko behintzat

(egunean bertan orraztu baino ez da egin behar). Eta ezkontzaren bezpera, berriz, erlajatzeko tratamenduak, masajeak, peeling-ak eta horrelakoak egiteko aprobetxatu daiteke. Horiekin, ezkontza egunean andregaiaren edertasunaren parekoa izango da senargaiarena ere.

ORAIN IKUSI  
**WEB**  
WWW.FOTOJAUJA.COM

ESKATU ORDUA AURRETIK  
TEL. 943 20 27 16  
M. 688 04 79 44  
URKI 17 BEHEA EIBAR

Loiola auzoa, 24 **AZPEITIA**  
**J A T E T X E A**  
Telefonoa: 943 81 56 08 Faxa: 943 15 03 62  
E-maila: kiruri@wanadoo.es

www.gadifot.es

**GADIFOT**

ARGAZKILARITZA - BIDEOA

Komentukoa, z/g  
Tñoa. 943 17 06 71  
Ermua -Bizkaia-

# Kantabria Jaietxea



**Edozein ospakizunetarako aukera**

*ARRATEKO SANTIUTEGIAREN  
ondoan aurkitzen gara*



*Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak, zilarrezko ezkontzak, urrezko ezkontzak, karta, enpresa bazkariak...*



*Arrate Auzoa, 4 Tel. 943121262  
Arrate -Eibar 20600*

**E**ztei-bidairako herrialdeen zerrenda mundua bezain zabala da. Bikote bakoitzak bere gustu eta aurrekontuari egokitutako bidaia diseinatzea da egokiena eta, horretarako, errezena eta erosoena profesionalen aholkuei jarraitzea da. Gaur egun bidaia-agentzia guztiek egiten dute lan eztei-bidaietarako pentsatutako eskaintza bereziekin eta gustura azalduko dizkiote bikoteari es-

kaintza bakoitzaren berezitasunak. Eta, jakina, diseinatutako eskaintza hori bikote bakoitzaren premietara moldatzeko aukera izaten da.

Dena dela, eskaintza zehatzak aztertzen hasi aurretik, komenigarria izaten da buruan ideia batzuk izatea eta, behintzat, nora joan nahi den jakitea. Oraindik zalantzan daudenentzat, nora joan erabakitzeko baliagarriak izan daitezkeen ideia batzuk:

- **Mauricio uhartea:** hondartza zuri eta itsaso garden bila dabilzan bikoteentzat aukera ezin hobea. "Indiako Ozeanoko bitxia" esaten diote askok. Ingurua bera eta paisaiak paregabeak izateaz gain, han bizi den jendea benetan atsegina dela diote. Azken urteotan asko dira uharte hau aukeratu duten bikote ezkon-berriak.
- **Mauritania:** hondartza zoragarriez gain, kontraste han-

diko herrialdea da. Basamortuaren xarma eta Adrar oasiak edo Banc D'arguin Parke Nazionalak eskaintzen dituzten paisaia ikusgarriak kontuan hartzekoak dira.

- **Maroko:** oso urrutira joan barik, hamaika aukera eskaintzen ditu Marokok. Medina, meskita eta horrelakoez gain, Fez, Marrakech eta Rabat moduko hiri liluragarriek jende asko erakartzen dute.

**Jauregui**  
San Agustin, 4  
943 20 16 47

OPARIETARAKO  
IDEAK

**MENAJEAKRISTALAOPARIAK**

**F. PASCUAL** Arane, 6  
Telf. 943 20 61 64  
Faxa. 943 20 85 43  
20600 EIBAR

**VIRGINIA PASCUAL**  
Zubiaurre, 36 (behea)  
Tel. eta Faxa: 943 17 68 28  
www.cocinaspascual.com  
48260 ERMUA

SUKALDE ALTZARIAK  
BARNERAKO

**943 70 20 24**  
Urkizu, 11 - Solairuartera

**E-boga ESTILISTAK**

Estilo bat,  
modu bat

Den-dena zure ilearentzat

**TXANPU**


ILEAPAINDEGIKO PRODUKTUAK:  
Plantxak / Ile-lehorgailuak  
Makinillak / Luzapenak / ...

BIDEBARRIETA 3

**HIRU HILABETERO PROMOZIO BERRIAK**

**TRATAMENDUAK:** ESNE NATURALA  
ETA JOGUR NATURALA

**ILE-LUZAPENAK:** TIRADUNAK,  
KERATINA ETA RASTAK



**GORPUTZ TRATAMENDUAK:** TXOKOLA-  
TERAPIA, HARRI-BEROAK, LOKATZA  
**BEHIN-BETIKO DEPILAZIOA:** FOTODEPI-  
LAZIOA - DIDO LASERRA  
**MIKROPIGMENTAZIOA**  
**GEL AZAZKALAK**

Bidebarrieta 20 (Galeria Komertziala) **GIZONEZKOEN**

- Punta-puntako orrazkerak
- Ile tratamenduak

**ILEAPAINDEGIA**

ORDUA  
HARTZEKO:  
Tel. 943 20 16 48



**BERRIA:**  
Dido laserrarekin  
behin-betiko  
depilazioa



943 207 047

**CASTAÑO**  
PELUQUEROS

F. Calbeton, 1 - 1. solairua, ezk.

Udaberri honetan

- ESTETIKA
- DEPILAZIOA
- AURPEGI GARBIKETA
- MAKILLAJEA

Bidebarrieta, 5

Tel. 943 201 547

**CAPI**

- LASER DEPILAZIOA • AURPEGI TRATAMENDUAK
- GORPUTZ TRATAMENDUAK
- WELLNESS TRATAMENDUA • MASAJEAK
- SOLARIUMA • SHOCK PROGRAMAK • BONOAK
- SPA ZIRKUITUAK • MIKROPIGMENTAZIOA



**CLINIQUE** PROMOZIOA

◆ Gorputz tratamenduak



◆ Solariuma



**ESTETIKA ZENTRUA**



◆ Pedikura



◆ Aurpegi tratamenduak



◆ Laser depilazioa



◆ Gorputz tratamenduak  
Bakunterapiare-

San Juan kalea, 11  
Tfnoa. 943 70 18 28

**EZKONTZA tartak eta despedidetarako (ENKARGUZ)**

**ANTXON DEGUSTAZIOA**

-EIBAR-  
Tel. 943 20 63 22

**Garitana** 1957an sortua  
**GOZOTEGIA**

- ETXERA banatzen dugu
- Ezkontza eta despedidetarako **TARTAK**

Julian Etxeberria, 6  
Tel. 943 20 24 51

San Andres gozotegia

**Ezkontzetarako tartak eta opariak prestatzen ditugu**

Bidebarrieta 28 - 20600 EIBAR  
Tel. 943 20 79 73

**Zure oporrak gure esku lagata...  
...zure ilusioak errealitate bihurtuko dira**

**VIAJES IBERIA**

ORIZONIA Corporación

PROBALEKU, 7 -ERMUA-  
Tf. 943 17 06 76

JULIAN ETXEBERRIA, 11 -EIBAR-  
Tf. 943 70 13 40

*...zure ezkonbidaian*

ordaindu baita  
**%7**  
gutxiago ere  
nuz. Halcon Bidalak bidez

Esanjo Domingo ● Tenerife ● Argentina ● Mallorca ● Kuba ● Alaska ● Dubai ● Oman ● Bahrein ● Costa Rica ● Kenya ● Tanzania ● Maroko Uharteak ● Seychellak ● Thailande ● India ● Vietnam ● Kanbodia ● Myanmar ● Filipinak ● Madeira ● Grezia ● Turkia ● Txile ● Egipto ● Italia ● Errepublikak Dominikano ● Birjina Uharteak ● Antillak ● Puerto Rico ● Brasil ● Balear Uharteak ● Tuniz ● Malta ● Kroazia ● Kopenhage

Bidalaketako erarik zentzuzkoena  
Halcon Eibar 943 20 24 12  
Halcon Ermua 943 17 69 33

**HALCON**  
BIDALAK



# Kolore gorriurdinez margotutako historia

*Foballaren munduan ikusentzunezkoek berebiziko garrantzia daukate. Edozein foball zelaitan dago kameraren bat eta telebistaz eskaintzen den foball partiduen kopurua handia da. Kirol honekin zerikusia daukan edozerrekin ekoiztutako bideo sorta ia zenbaezina da. Eibarko foball taldeak ere bere lekua dauka ikusentzunezko material guzti horren artean eta, orain, presentzia hori handitu egingo du. Izan ere, Eibar KE-ren historia batzen duen dokumentala aurkeztuko da gaur Coliseoan 20.00etan (domekan beste emanaldi bat egongo da 19.00etan leku berean).*

**D**okumentalak Nafarroako Unibertsitatean du jatorria, izan ere, bertako ikasleak diren Jorge Llama eibartarrak eta Cecilia Borja nafarrak Eibarko foball taldeari buruzko dokumentala egitea erabaki zuten karrera amaierako proiektu bezala. Soinu eta Irudi espezialitateko Telekomunikazio Teknikoko Injenaritzako ikasle bi hauek uste zuten Eibar KE-ren historia ez zegoela behar den bezala kontatuta. *“Real Madrilen aurka jokatu zen Kopa kanporaketan egin zen dokumental txiki bat, baina ez zegoen ezer gehiago”*. Horrela, unibertsitatean eta Eibar KE-n proposamena aurkeztu eta hau onartua izan ostean, bikotea proiektuan lana egiten hasi zen.

## Hasiera aldrebesa

Unibertsitatearen eta Eibar KE-ren onarpena jaso ostean,



**Azkenean iritsi da ordua ikasle biek egindako lan guztiaren emaitza interesgarria ikusteko; horregatik daude pozik egileak.**

Jorge Llama eta Cecilia Borja martxan jarri ziren. Baina ezin izan zuten dokumentala egiteko ohiko prozesua jarraitu, izan ere, talde armaginak momentu historikoak bizi zituen lana has-teko garaian, 2. B mailatik 2. A mailara igotzeko play off-a jokatzen baitzegoen. *“Ohikoena lehendabizi gidioa idatzi eta gero grabatzea da, baina taldea play off-a jokatzen zegoenez alderantziz egin genuen, lehenengo grabatu eta gero gidioa idatzi”*.

Abuztuko oporretatik bueltan gidioa prestatu eta 30 bat elkarrizketa egin zituzten Jorge

## Lehenengo emanaldirako sarrerak agortuta, bigarrena egingo da domekan



**Eibarko zaletuei jarraipen berezia egin diete une garrantzitsuetan.**

eta Cecilia. Jokalari ohiak, presidente ohiak eta hainbat zaleturen berbak jaso zituzten, besteak beste.

## Kronologikoki kontatua

Dokumentala Eibarko hiriri eta eibartarrei buruz hasten da berbetan. Herriaren eta bertako bizilagunen izaera Eibar KEk igortzen dituen baloreekin erlazionatzen du: konpromesua, aldagelaren indarra, batasuna eta abar. *“Ondoren, 1940an kokatzen gara, urte horretan sortu baitzen taldea eta Eibar garai hartan nolakoa zen aipatzen dugu, Eibar industriala”*. Dokumentalak talde eibartarren historia kronologikoki erakusten du. 2. A mailara lehen aldiz igo zeneko irudiak, Real Madrilen aurka jokatutako Errege Kopako neurketak, Mendilibarren eskutik ia 1. mailara igo zeneko urtea eta dokumentalak izan zitekeen amaierarik onena: iaz lortu zen 2. A mailarako igoera.

## Igoeretako irudiak

Zortea izan zutela aitortzen du Jorge Llamak; *“proiektua hastean taldeak play off-a jokatzen zuen eta mailaz igotzea lortu zuen”*. Argitara atera gabeko irudiak ikusi ahal izango dira dokumentalean, izan ere, *“Manix eta Iñigo Arriolak alda-*

*geletako atea parez-pare ireki zizkiguten grabazioak egiteko eta oso irudi onak lortu genituen”*.

Jorgek, bestalde, 1988an Durangon 2. A mailarako igoera lortu zuen taldearen eta iaz lortu zuenaren artean dagoen aldea azpimarratzen du. *“Foballa aldagela barruan nola bizi denaren kontrastea handia da, alde ikaragarria dago urte bateko irudietatik besteetara”*.

## Unibertsitateko Collseora

Unibertsitateko proiektu bat bezala hasi zena Coliseoan ikusi ahal izango da birritan. *“Oso harrera ona izan du dokumentalak, ez genuen espero”*. Egileak oso pozik agertu dira lortu dutenarekin, *“hasiera batean unibertsitateko proiektu bat zena hainbeste jende ikustera joatea zoragarria da guretzat”*.

Saio bi horiez gain ez da aukera gehiago izango, printzipioz, dokumentala ikusi ahal izateko. Hala ere, Jorge Llamak zehazten duenez, *“oraindik ez dakigu DVD-an argitaratuko dugun, dokumentaleko irudiak era horretan erabiltzeko baimena eskatu behar dugulako”*. Eibar KEren historia, beraz, ordu eta erdi irauten duen ikusentzunezkoan. Historia gorriurdina.

## Erritmikako Euskadiko Ligaren II. txanda Ipuruan domekan

**G**imnasia erritmikako Euskadiko Ligaren II. txanda izango da jokoan domeka goizean Ipurua kiroldegian, hasi 09.30etan eta ia 15.00ak arte luzatuko den jardunaldian. Bertan jokatuko dira Espainiako Erreginaren Koparako eta eskol adineko Espainiako Txapelketarako kontrola. Ipurua taldeko senior mailako hiru ordezkariak (Mai-

der Jiménez, Garazi Pablogorrán eta Helena Jauregi), junior mailako Olatz biak (Ibaibarriaga eta Laskurain) eta infantiletako Onintze Pablogorránek hartuko dute parte. Horrez gain, kontroleko lehiaketan, Garazi Pablogorrán, Maider Jiménez, Olatz Laskurain eta Olatz Ibaibarriaga arituko dira arratsaldeko 16.00etan hasiko den txapelketan.




Garazi Pablogorrán Ipuruan izango da asteburuan, beste behin ere Eibarko taldearen mailaren adierazgarri.

## Xakeko Euskadiko txapeldun berriak Unibertsitate Laboralean

**E**mozioa azken minuturaino bizi izan zen gure herrian jokatu diren Euskadiko kadete eta jubenil mailako xake txapelketetan. Jubeniletan Alvaro Díazek nagusitasun handia erakutsi du, jokatutako partida guztiak irabaziz, azkena gainera Haritz Garro eibartarrari; Deportiboko xakelariak 3. postuan amaitu du, Imanol Martínez bigarrenarekin berdinduta.

Kadete mailari dagokionez, hor bai ez zela txapelketa azken unera arte erabaki; eta amaitzen azkena izan zen partidak, txapelketa guztiko luzeenak (lau ordu ingurukoa), Oskar Díezi eman zion txapela, Hector Sánchezi irabazi eta gero. Maila horretan, Julen Garro eibartarra, txapelketaren buruan joan den Asier Etxagibel arrasatearrari irabazi eta gero, 2. postuaz jabetu da azkenean.

Emakumezkoetan, kadete eta jubenil mailako txapelketekin batera, helduena ere izan da jokoan eta hor



Haritz Garrok 3. postuan amaitu zuen jubenil mailan.

Isabel Menoyo izan da txapelduna, Eider Velascoren aurretik. Nekane Cuetosek irabazi du jubeniletan eta Leire Cruz donostiarrak kadeteetan.

## Jose Autos eta Durangoren arteko lehiak jarraitzen du foball-zaletuan

**A**zken jardunaldian, Durangok Sporting-i 3-1 irabazi zion bitartean, Jose Autosek oraindik zailago izan zuen Tankemansekin, eta Carolok lortutako gola erabakigarria izan zen gaur egungo liderrak lidertzari eusteko. 57 puntu dituzte Jose Autosekoek eta puntu bakarrera daude du-

rangokoak. Asteburuan 22. jardunaldia izango da jokoan, honako partidu hauekin: zapatuan, Sporting-Teknografik (08.30), Txoko-JoseAutos (10.00) eta Tankemans-Aguñiaspi (11.30); domekan, bestalde, Eitek-Durangoko eta Azkena-Areto (09.00) eta Akats-Vivaldi (10.30) jokatuko dira.




## Urkiko nesken denboraldi bikaina

**B**igarren fasean sartuta, infantil mailako Urkiko neskek multzoko lehen postuan jarraitzen dute, ikaragarritzko markarekin: jokatutako zazpi partiduak irabazita, 36 gol du alde eta 8 bakarrik jaso ditu. Egoera horretan, ez da arraroa taldeko lau jokalarik (Iruñe Alberdi, Ane Atristain, Nekane Tejedor eta Miren Zulaika) Aste Santuan Eibar Foball Taldearekin jokatu ahal izatea Zubietako kadete torneoan; gainera, bi eta hiru urte nagusiagoak zirenen aurka aurpegia eman izan dute eta torneoko azpitxapeldun izan dira, finala penaltietan galduz. Domekan 10.30etan Ilintxaren aurka jokatuko du Urkik.

## Kenci, areto-foballeko Euskal Ligako lider sendoa

**E**lgoibarko taldeak zazpi puntuko aldea kentzen dio saillkapeneko bigarrenari eta martxa ezinhobean jarraitzen du Euskal Ligako txapelketa irabazteko. Zazpi jardunaldiren faltan, gure eskualdeko lehenengo taldea da multzoan gol gehien sartu duena, 119rekin, partidu bi galduz bakarrik.





Mikel Nievек irabazi zuen iazko edizioa.



AMAIA JAIO

## Balentziaga Memoriala berriro gure errepideetan, afizionatu mailako txirrindulari onenekin

**H**erenegun aurkeztu zen Balentziaga Memorialaren 37. edizioa, domeka goizean (09.00etan) hasi eta eguerdiko 13.00ak inguruan amaituko den proba entzutetsua. Estatuko afizionatu mailako txirrindulari onenak batzen dituzten lasterketa horrek eta irabazleak profesionaletara jauzia emateko urrats garrantzitsuztat izaten du beti halako garaipena. Probaren irabazleen artean ditugu, esaterako, Jose Luis Viejo, Martínez-Heredia,

Suárez Cuevas, Julian Gorospe, Jokin Mujika, Jose Luis Rubiera, Claus Moller, Unai Osa, Oscar Freire, Joaquin Rodríguez edo Dioni Galparsoro.

Eibarko Txirrindulari Elkarteak antolatutako probak 163,2 kilometro izango ditu guztira eta bidean sei mendate gainditu beharko dituzte: 1. mailako Ixukoa, oso erabakigarria izaten dena; 2. mailako Elgetakoa; eta 3. mailako Itziar, Meagas, Areitio eta San Miguel. Tarteko helmugak, bestalde, Deban (18. km)

eta Eibarko Kantoin (144. km) kokatuko dira. Talde bakoitzak, guztiak gonbidapen bitartez datozenak, zazpi txirrindulariz osatuta egongo dira. Sariak, guztira, ia 4.000 eurokoak izango dira eta, sailkapeneko lehenengo hongo txirrindulariek jasoko dutenez gain, hiru talde onenendako, saiatuenarendako, mendiko sailkapeneko hiru onenendako, tarteko helmugan irabazlearendako eta Euskal Herriko lehenengoarendako izango dira. Helmuga San Andres parrokiaren parean egongo da.

## Eibarko rugbilariak nagusi L'Hospitaleten aurrean

**I**tzulerako partidu gogorra izango dute Eibar Hierros Anetxekoek L'Hospitaleten asteburuan Unben 11-3 irabazi eta gero. Joko gogorra erakutsi zuten kataluniarrek Eibarko taldearen jokoari aurre egiteko eta 0-3 aurretik ere ipini ziren; baina eibartarren kemena gehiago izan zen eta, zaila izan arren, merezitako garaipena lortu zuten, Enmanuelen transformazio biri eta Jon Espi-

llaren entsaio bati esker. Maxi Vega eibartarrak txartel horia ikusi zuen eta kiroltasun gutxi erakutsi zuen Delgado kataluniarra kanporatua izan zen.

Alde handirik lortu ez badute ere, itxaropentsu daude eibartarrak kanporaketa euren alde egingo dutelakoan. Iñaki Laskurainek eta Jon Zarrauak entrenatzen dituzten mutilek dena eman beharko dute domekan.

## Eibar KE - Alavés bihar arratsalde

**O**hiko prezioak izango ditu bihar, 18.30etatik aurrera, Ipuruia zelaian jokatu den Eibar KE eta Alavésen aurkako partiduak; gainera, neurketa ETB-1eko kamarek eskainiko dituzte zuzenean. Gasteizko taldea jaisierako postutik gertu dago, hau da, eibarta-

rrak baino larriago, eta ez da espero zaletu asko gerturatuko denik bertara. Eibarrek 375 sarrera bidali ditu Gasteizera. Eibarrek ere 40 puntu ditu eta lehenbailehen ahalegindu behar da beste hamar lortzen sailkapenean inolako arazorik ez izateko. Ea etxean sendo jarraitzen duten.

## Arrateren partidu zaila Leonen

**B**ihar, arratsaldeko 18.30etan, Leongo Kirol Jauregian Arrate eskubaloit taldeak oso neurketa zaila izango du Asobal Ligako sailkapeneko 3.aren aurka. Leongo Ademarrek, gainera, Ipuruan galdutako partiduen mendekua hartu nahi izango du eibartarren kontura. Hala eta guztiz, liga amierarako bost partidu bakarrik geratzen direnean, eibartarrak 7. postuari eusten diote eta datorren urtean Europar jokatzeko aukera begi bistan dute Iñaki Bolinagak zuzentzen duen taldean.

## Pelota partiduak bihar kiroldegian

**A**rratsaldeko 17.00etan hasiko da Deba Arroko Torneoaren barruko jubilen arteko partiduak: Deportiboko González eta Arostegik Elgoibarko bikoteari egingo diote au-

rra; eta, jarraian, Udaberri Torneoaren barruan, Zubizarreta-Unamunzaga eta Andoaingo bikoteak neurtuko dituzte indarrak, eta horko irabazleak maila horretako finala jokatu du.



## Rallyestonetik erretiratu ziren Moro eta González


**R**uben Morok eta German Gonzálezek (Porsche 924) osatutako bikotea III. Rallyestonetik lehen etapari erretiratu zen, distantzien neurtzailearen funtzionamendua ez zelako egokia. Terratrip izeneko aparagailuak igortzen zituen datuak errealtateak erakusten zituenaigaitik oso hurrin zeuden.

Bikoteak ohar baten bitartez adierazi duenez, "terratripa egoera horretan egonda, jarraitzeak ez zeukan logika handirik". Distantziak neurtzeko apa-



Ruben Morok eta German Gonzálezek ez zuten zorte handirik izan Rallyestonean, tetrarrip izeneko aparailuak kale egin zielako.

ragailu barik bikoteak ez zeukan zereginik, horrela, edozer gauza eginda ere ezer gutxi lortuko zuten. Terratripak ondo funtzionatu zuen bitartean gauzak ondo ari zitzaizkien irtetzen eibartarrei. Izan ere, barixakuan 21.00ak aldera lasterketa Zea-nuritik pasa zenean 6. postuan zeuden. Beraz, oso gogorra izan zen bikotearentzat lasterketa uztea, gogo handiarekin ekin baitzioten eta euren helburua, lehen 20 sailkatuen artean amaitzea, lortuko zutela usete zuten.



### Usobiaga harkaitzera itzuli da Katalunian beste bide batekin

**H**arkaitzerako itzulera indar handiz egin du Patxi Usobiaga eskalataileak. Katalunian 8c+ eta 8c zailtasuneko bederatzi bide eskalatu ditu eta 9a zailtasuneko *Fabela pa la enmienda* kateatuta biribildu du lana Santa Linya eskolan. Bide horrek erresistentzia eta blokeko mugimenduak ditu ezaugarritzat. Irati Andak, berriz, Laura (8a) eskalatu du Magalefen, bistaz.

### Cuevas euskaldun onena Azpeitia-Azkoitian

**Z**apatuan Azkoitia-Azpeitia maratoi erdiaren XV. edizioa jokatu zen eta bertan inoiz baino parte hartzaile gehiago izan ziren, guztira 1.177 dortsal. William Chebor keniarak irabazitako proban, Goierri-Garaia taldeko Asier Cuevas atleta eibartarrak 8. postuan amaitu zuen eta Euskal Herriko ordezkari onena izan zen. Ordubete eta hamar minutu justu behar izan zituen gaur egungo Espainiako maratoi txapelkunak. Emakumezkoen proba beste keniar batek irabazi zuen, Margaret Atodonyang-ek.

### Mendizaleentzat emanaldi sorta Elgoibarren

**H**erenegun hasita, "Udaberriko asteazkenetan mendi emanaldiak" martxan ipini ditu Morkaiko Mendi Taldeak. Iazkoari jarraituz, oraingoan ere bost saio izango ditu programa horrek, guztiak Elgoibarko Musika Eskolan emango direnak, eguaztenero eta 21.30etan. Herenegungo Juan Vallejoren "Montañas del Mundo"-ren ostean, honakoak dira programatutako beste laurak: apirilaren 9an, Alberto Agirreazaldegiren "Rajalta Rajalle Hiito"; hilaren 16an, Josu Merinoren "Cerro Torre"; hilaren 23an, Anex Retanaren "Mendiko Eskia Silverettan"; eta maiatzaren 7an, Alberto Iñurrategiren "Begiz Begi".



Alberto Iñurrategik "Begiz Begi" lana erakutsiko du maiatzaren 7an.

### Foball-areto txapelketaren Kopako 'finalisima' jokoan astebururako

**U**nibertsitate Laboralean jokatuko dira XIV. Eibarko foball-aretoko Kopako faseko bai finalerdiak eta baita finalak ere. Final laurdenetan honako emaitzak eman ziren: Tupi Azpi, 3 - XOK, 2; Recreativo, 5 - Zardon United, 3; R.K.C., 5 - Urkikolokoia, 1; eta Dream Team, 7 - E-90, 5.



Finalerdiak domeka goiz eta eguerdian jokatuko dira eta Tupi Azpi eta Recreativoren artekoa 11.00etan hasiko den bitartean, R.K.C. eta Dream Team-enen artekoa 12.00etan. Final nagusia, bestalde, martitzenean, hilaren 8an jokatuko da, arratsaldeko 21.00etan hasita; ordubete lehenago 3. eta 4. postua izango dira jokoan.

### Ibarluzea nagusi hiru-txirloan

**S**an Miguel bolatokiko Angel Ibarluzeak alde handia aterazien beste guztiei Gipuzkoako XXXIX. hiru txirlo bolo txapelketaren lehenengo jardunaldian. Zortzi txirlo bota zituen elgoibartarrak eta atzetik izan zituen guztiak ez zi-

ren bostetik pasatu; euren artean izan ziren Asola-Berriko hiru ordezkari (Arkaitz Rodríguez, Bittor Astigarraga eta Bittor Ugarteburu). Hurrengo jaurtialdia Elgoibarko San Pedron izango da bihar, arratsaldeko 17.00etan.

## Gaztetan udaberrian

**E**ibarko Udalak, Astixaren gestioaz, aurten ere 'gaztetan Udaberrian' programa ipiniko du martxan. Antolatzaileen berbetan, "programaren helburu nagusia, jarduera ludikoen bitartez 11 eta 16 urte bitarteko gazteen artean euskeraren erabilera bultzatzea da. Horrez gain, lagun berriak egiteko eta Eibartik kanpo beste toki batzuk ezagutzeko aukera ematen zaie".

Aurtengo programaren barruan irteera bi prestatu dituzte: 'Arrainekin lotan' Donostia-



ASTIXA

ko Aquariumera (DLHko 5. eta 6. mailakoentzat, apirilaren 25 eta 26an, 18 euro) eta Zuazako irlara (DBHkoentzat, maiatzaren 10 eta 11n, 18 euro). Izena emateko apirilaren 7tik 13ra

bitartean Errota gaztelekura joan behar da (Karmen kalea, 3), 17.00etatik 20.00etara. Informazio gehiagorako 943-206231 telefono zenbakira (Astixa) deitu daiteke.

## Kezkako dantzariak York-era

**K**ezka Dantza Taldeko dantzariak Ingalaterra-ko York hirian maiatzaren 23tik 26ra ospatuko den 'Sword Spectacular' jaialdian

hartuko dute parte. Ekitaldia hori munduko ezpata-dantza jaialdirik garrantzitsuenetarikoa da eta, besteak beste, Amerikako Estatu Batuetako,

Kanadako, Australiako, Italiako, Suitzako, Alemaniako, Belgikako eta Ingalaterrako dantza-taldeek hartuko dute parte.


Kezkako dantzariak aurretik ere hartu izan dute parte atzerriko hainbat jaialditan, euskal dantzak ezagutzera ematen. Aste Santuan, berriz, Utah-ko unibertsitateko 18 dantzari izan ziren Eibarren 10 egunez. Richard Wackok zuzentzen duen taldeak hemengo dantzak ikasteko aukera izan zuen, eta Zuberoan eta Elgoibarren egon ziren dantzariak hainbat dantza emanaldi ikusten.



## Arrikruzera txangoa Kulturekin

**O**ñatin, Arantzazuko Santutegiaren inguruan dagoen Arrikruzteko kobetara txangoa antolatu du Arrate Kultur Elkarteak apirilaren 19rako. Txangoan parte hartzeko kopu-

rua 40 lagunera mugatuko du eta ordu-bete inguruko bisita egiteko hogeitauko talde bi osatuko dira. Izena emateko, 943-202299 edo 626-984-472 telefono zenbakietara deitu daiteke.



URKIZU, 7 ☎ 943 82 04 94 / 943 12 11 20 Faxa: 943 12 11 40  
uthemek@uthemek.com



MEKANIKETARAKO  
TRESNAK

SPK- Zeramika, silizioa

ISCAR - Trontzaketa eta fresadorarako erreminta bereziak

ROY - Diamante eta boraxezko harriak

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

**NTRA. SRA. DE BEGOÑA**  
EHORZKETA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:  
Taltxa-Zelai 4-6 behe, ezkerre

ZERBITZU IRAUNKORRA:  
☎ 943 20 10 95 Faxa: 943 20 25 64



### Bakotzak berana

**B**akoitzak berea, jangoiko-aren legea". Halan diño eseriak. Ona edo txarra, geuk be geuria darabigu.

Batzuk aberastasun haundia dakagula diñue; beste batzuk euskara batu bakarraren alde egitten dabe, eta bakotzak berana egittiak alkarulertzia zaildu besterik ez dabela egitten pentsatzen dabe. Neri politta begittantzen jata. Nere gustuko entretenimientua izan da beti ezautu izan dittuten pertsonak nunguak diran azertatzia. Herrixetako jaixetara juan ta... "Nungú da nire berbeti?" nik, nahitta. Azkoitiar edo azpeitiareri igartzia nahiko erreza izan da beti, eta "Zu azkoitiarra" esandakuan "Háinbeste nóta-tze al da, ba?" edo "Háin narména al da, ba?" erantzuten dabe, txiklia mastikatzen balegoz moduan. "Nik ere..." esaten badabe, elgoibartarrak, seguru! Ariketa dibertigarria da asmakizunetan ibiltzia! Eta baita herri eta hizkera desberdinetako doiñuak imitatzia be!

Aste Santuan Iturenen egon naiz, lagun baten etxian. Euren artian berba egitten zebenian, hiru bertatik bat entenditzen neban bakarrik eta "Kutxidazu bidea, Ixabel" liburuko protagonis-tian antzera sentidu nitzan. Baina eurak ezin zeben sinistu euren berbetia ulertzen ez daben batenbat egon leikianik. Umetatik entzun bihar izan dot gure berbetia txarra eta zatarra dala. Baiña Legorretako batek euskara politta genkala esan zestanian kon-turatu nitzan zatarrrik ez da-guala; diferentia bakarrik. Bakotzak berana.

**Aintzane Agirrebeña**

## Datorren astean hezkuntzak aukeran

**E**ibarko Hizkuntza Eskola Ofizialak hainbat hitzaldi antolatu du datorren as-terako, hizkuntza ezberdine-tan: astelehenean Andrew Marshall ipuin-kontalariak emanaldi bi eskainiko ditu ingelesez, 17.00etan oinarriko maila dutenentzat eta 19.00etan, berriz, ingelesa gehiago menperatzen dute-ententzat; martitzenean, Andre-as Oestreicher suitzarrak han-go bizimodu eta ohiturei bu-ruzko hitzaldia emango du 19.00etatik aurrera alemanie-raz (amaieran fondue-a egingo



**Eguenean Jon Maia bertsolariak "Riomundo" bere liburuaz eta kanpotik etorritako bere familiaz jardungo du.**

da); eguaztenean, Tas Tas Irra-ti Libreko 'Berimbau' irratsai-oko Catherine Verbruggek fran-tsesez jardungo du munduko doinu eta erritmoak nahasten dituzten Frantziako taldeei bu-ruz; eta eguenean, berriz, Jon Maia bertsolariaren txanda izango da.. "Riomundo" libu-ruaz eta kanpotik Euskal Herri-ara etorritako bere familiareen historiaz jardungo du euska-raz. Hitzaldi guztiak Portaleko areto nagusian izango dira, 2. pisuan eta ekitaldi guztiak ire-kiak dira (ez da Hizkuntza Es-kolako ikasle izan behar).



## Emilia Nogales artistaren margoak Debegesan ikusgai

**E**milia Nogales el-goibartarraren la-nak Debegesako egoitzan ikusgai izan-go dira apirila osoan zehar. Moda disena-tzaile lana laga eta orain 11 urte margo-tzeari ekin zion artista honen koadroak orain hurrengo Elgoibarko

Kultura Aretoan ikuste-ko aukera izan da. Mar-golaritzan eman zituen lehenengo pausuetan olioak egiten zituen, baina gaur egun akrili-koak margotzen ditu batez ere eta teknika hori erabilita egindako lanek osatzen dute De-begesako erakusketa.



## Zezenzaleak Salamancan

**E**ibarko Pedrucho Zezenzaleen elkartekoak Salamancan izan ziren aurreko asteburuan. Zapatuan, besteak beste, ganadutegi bat bisitatu zuten eta domekan, berriz, Eibar taldeak

Salamancaren aurkako partidua jokatzen zuela aprobetxatuta, norgehiagoka ikustera joan zi-ren. Horrez gain, hiria ezagutzeko aukera izan zuten irteeran parte hartzera animatu zirenek.



## Klub Deportiboko argazkilarien lanak

**Apirila amaitu bitartean, Elbarko Klub Deportiboko argazkilarien lanak ikusteko aukera izango da herriko hiru tabernatan:** Mendi Taldekoek 1988-2008 bitartean ateratako hainbat argazki ikusgai ipini dute Deportiboan bertan '20 urte Euskal Herria zeharkatzen' izenburupean eta Argazki Taldekoek aurtengo Aratosteetan ateratakoak, berriz, El Ambigú-n eta Portalea tabernan ikusteko moduan daude.

## Irigoiene lanak Bartzelonan ikusgai



**Jose Luis Irigolen argazkilarien irudiak apirilaren 21era arte Bartzelonan, Sant Adrià de Besós-en ikusgai egongo dira.** Erakusketa hango Sant Joan Bautista argazkilaritza taldearen egoitzan ikus daiteke (Doctor Barraquer kaleko 6an). Klub Deportiboko argazkilaritza taldeko kideak aurretik ere erakutsi izan ditu bere lanetako batzuk Sant Adrià de Besós-en.

## Mercé Martínez Topalekuan

**Gaur hasi eta apirilaren 13ra arte, Mercé Martínez Bancells artistaren collageak ikusgai izango dira Topalekuan,** Arrate Kultur Elkartearen erakusketa aretoan. Erakusketa ohiko ordutegian egongo da zabalik: aste-gunetan, 19.00etatik 21.00etara eta zapatu eta domekan, berriz, 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara.



**Portaleko erakusketa aretoa txontxongiloz beteko da gaur (19.00etan). Ondarroan bizi den Corrado Masacci marionetista italiarrak zirkoaren munduan oinarritutako txontxongilo erakusketa aurkeztuko du apirilaren 20ra arte martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30etara. Zirkoak, horrela, txontxongilo itxura hartuko du Portalean.**



## CORRADO MASACCI, MARIONETISTA:

### “Zirkoa eta txontxongiloak oso hurbil daude”

**- Nola sortu zitzaizun txontxongiloekiko zaletasuna?**

1978an hasi zen txontxongiloekiko dudan zaletasuna. Urte horretan Arte Ederretako institutoan egindako ikasketak amaitu nituen eta,aldi berean, umeein animatzaile bezala lan egiten nuen txontxongiloak sortuz. Orduan, txontxongilo hindu batzuen erakustaldi bat ikusi nuen eta harrituta utzi ninduen. Ikusitakoaz liluratuta, konturatu nintzen txontxongiloak zirela niri gustatzen zitzaizdan gauzetan lan egiteko erarik onena.

**- Mundu osoko txontxongiloak izateaz gain, zuk ere sortu egiten dituzu.**

Bai. Esan daiteke txontxongilo biltzaile bat naizela, baina nire burua txontxongilo sortzailezat daukat.

**- Zer aurkitu dezakegu zure bilduman?**

Eibarren egingo dudan erakusketan?

**- Bai.**

Zirkoari buruzko erakusketa tematiko bat da. Horrela, hainbat txontxongilo mota aurkitu ahal izango dira: eskularru-txontxongiloak, hagaxkazko marionetak, goitik mugitzen diren hagaxkazko marionetak eta abar. Erakusketan ikusi daitezkeen teknika guztiek zirko pertsonaiekin zerikusia daukate.

**- Zirkoaren mundua beti egon da maglaz inguratuta.**

Bai, noski. Gainera, zirkoa

eta marionetak oso hurbil daude, hurbiltzen dituen zer-bait dago. Urte askotan zehar, txontxongilo ikuskizunak egiteko orduan zirkoa beti izan da gauza errepikaria. Niri zirkoa asko gustatzen zait eta umeei ere, horregaitik erabaki nuen honelako erakusketa bat egitea.

**- Nolako prozesua jarraitu behar du txontxongilo bat sortu nahi duenak?**

Hasiera batean, garrantzitsuena ideia izatea da, hau da, zer pertsonai sortu behar eta nahi den. Ondoren, beste alde bat jorratu behar da, dokumentazioa. Nik, prozesuaren zati honetan, sortu behar dudana pertsonaiaren inguruan informazioa biltzen dut. Hau guztia egin ostean, txontxongiloaren sortze prozesua hasien da.

**- Zeln material erabiltzen dituzu?**

Lehendabizi, papera erabiltzen dut. Burua egiten dut eta ondoren egurrekin lantzen dut txontxongiloaren gorputza.

**- Zer ahalegintzen zara igortzen zuk sortutako txontxongiloekin?**

Hasieran, eta nagusiki, momentu ona pasaraztea nahi dut soilik, besterik ez. Horrela, ahal den heinean, ikuskizunak edo txontxongilo erakustaldiak ikustera etortzen diren ume eta helduei, barrea sortarazi eta une ederra pasarazi nahi diet.

**telefono jakingarriak**

SOS deiak..... 112  
 Pegora ..... 010  
 Udaletxea ..... 943 70 84 00  
 Portalea ..... 943 70 84 39  
 Udaltzaingoa..... 943 20 15 25  
 Mankomunitatea.... 943 70 07 99  
 Debegesa ..... 943 82 01 10  
 KIUB ..... 943 20 38 43  
 Epaitegia ..... 943 03 34 00  
 Iberdrola..... 901 20 20 20  
 Naturgas..... 902 12 34 56  
 DYA Larrialdiak... 943 46 46 22  
 Gurutze Gorria.... 943 22 22 22  
 Mendaro osp..... 943 03 28 00  
 Anbulategia..... 943 03 25 00  
 Torrekua ..... 943 03 26 50  
 Errepideak..... 902 11 20 88  
 Ertzaintza ..... 943 53 17 00  
 Eusko Tren..... 902 54 32 10  
 Pesa..... 902 10 12 10  
 Taxiak ..... 943 20 30 71  
 ..... 943 20 13 25  
 Alkoholiko Anonimoak ..... 629 14 18 74

**autobus ordutegiak**

EIBAR-DONOSTIA. Egutegia: 07.00, 08.50, 10.30, 13.30 eta 18.30. Laneguna: 08.00, 15.30, eta 20.30. Jaieguna: 09.30 eta 20.30. DONOSTIA-EIBAR. Egutegia: 12.30, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30 eta 13.30. EIBAR-BILBO. Laneguna: 06.40etatik 20.40etara orduro. Zapata eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara orduro. BILBO-EIBAR. Laneguna: 06.40etatik 21.40etara orduro. Zapata eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara orduro. EIBAR-GASTEIZ. Egutegia: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapata: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaieguna: 08.45, 10.45, 14.45, 18.45 eta 20.45. GASTEIZ-EIBAR. Egutegia: 08.30, 12.30, 16.30 eta 20.30. Jaieguna: 08.30, 10.30, 12.30, 16.30, 18.30 eta 20.30. EIBAR-IRUÑA. Laneguna: 07.45 eta 13.30. Jaieguna: 07.30 eta 18.00. IRUÑA-EIBAR. Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaieguna: 10.45 eta 21.00. EIBAR-ARRATE. Zapata: 14.15. Domeka eta jaieguna: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. ARRATE-EIBAR. Zapata: 14.45. Domeka eta jaieguna: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. EIBAR-ELGETA. Laneguna: 13.30 eta 20.20. Domeka eta jaieguna: 12.00 eta 19.00. ELGETA-EIBAR. Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaieguna: 12.30 eta 19.30. ERNUEA-MENDAROA. Asteleheneratik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.20etara orduerdiro). Zapata-Domeka-Jaieguna: 06.50-etik 21.50-era orduro. MENDAROA-ERMUA. Laneguna: 06.55etatik 21.55etara orduerdiro. Zapata-Domeka-Jaieguna: 07.55-etik 21.55-era orduro.

**tren ordutegiak**

EIBAR-BILBO. Laneguna: 06.13etatik 21.13etara orduro. + 10.35 eta 21.38. BILBO-EIBAR. Laneguna: 05.57etatik 20.57etara orduro. + 09.34 eta 20.18. EIBAR-DURANGO. Egutegia: + 22.18. EIBAR-DONOSTIA. Laneguna: 06.13etatik 20.13etara orduro. + 10.35 eta 21.38. DONOSTIA-EIBAR-ERMUA. Laneguna: 05.47etatik 20.47etara orduro.

**eguraldia**

*Euskal Meteorologia Agentziatik*

**BIHAR EPELAGO**

**ZAPATUAN** lainoak eta ostarteak tartekatzen joango dira egunean zehar. Tenperaturari begiratuta, berriz, termometroak gora egingo du eta aurreko egunetan baino giro epelegoa izango dugu. **DOMEKARAKO** lainoak ugarituko direla aurreikusitako dute eta tenperaturak, berriz, behera egingo du.

**4 barixakua**

**DOKUMENTALA**

20.00.- 'S. D. Eibar. El documental'. Euro 2. Coliseoan.

**5 zapatua**

**ARMERIA ESKOLA**

11.00.- Armeria Eskolako lkasle Ohien urteko batzarra. **12.30.-** Argazkilaritza lehiaketako irabazleei sariak banatuko dizkiete. **12.45.-** Antono Canceloren hitzaldia. Armeria Eskolan (ondoren, bazkaria Kantabria jatetxean).

**6 domeka**

**TXIRRINDULARITZA**

09.00.- Untzagan hasita, XXXVII. Valenciaga Memoria-la (Espainiako Kopa Klasikoa, sub-23). Amaiera 13.00etan Eibarko Bizikleta Plazan.

**BIKIEN BAZKARIA**

11.15.- Untzagan elkartuko dira **12.00.-** Meza San Andres elizan. Taldeko argazkia. **14.30.-** Bazkaria.

**DOKUMENTALA**

19.00.- 'S. D. Eibar. El documental'. Euro 2. Coliseoan.

**7 astelehena**

**IKASTEN**

15.00.- Sendabelarren Foroa. Korradu-belarra (Ranunculus ficaria). Portalean.

**IPUIN KONTALARIA**

17.00.- Andrew Marshall ipuin kontalariaren saioa (oinarizko maila). **19.00.-** Andrew Marshall ipuin kontalariaren saioa (tarteko eta goi maila). Hizkuntza Eskolaren eskutik. Sarrera librea. Portalean.

**IRAKURKETA**

17.30.- Donde el corazón te lleve' lanaren irakurketa. Irakaslea: Nacho Martín García. Untzagako jubilatuko etxean.

**8 martitzena**

**UNI ENCOUNTER**

16.00.- Software Libre Eguna. Uni Eibar-Ermua (Ermuan).

**HITZALDIA**

19.00.- Andreas Oestreicher: 'Suitzako bizimodu eta oohiturak'. Jarraian fondue-a eskainiko da. Hizkuntza Eskolaren eskutik. Sarrera librea. Portalean.

**GURASOAK MARTXAN**

19.00.- 'Prevención de consumos problemáticos'. Itzio BHLn.

**EIBAR ZINE-KLUBA**

21.30.- "El sueño de Casandra" (Zuz: Woody Allen). Sarrera: 3'50 euro. Coliseoan.

**9 eguaztena**

**UNI ENCOUNTER**

16.00.- 'Datozkigun Teknologiak'. Uni Eibar-Ermuan.

**KONTZERTUA**

19.00.- 'Didgeridoo doinuak', Iban Nikolainen eskutik. Sarrera doan eta librea. CAN-n (Errebal, 22an).

**HITZALDIA**

19.00.- Munduko doinu eta erritmoak nahastaten dituzten taldeei buruzko hitzaldia, Catherine Verbruggen Tas-Tas irrati libreko 'Berimbau' irratsaioko koordinatzailearen eskutik. Hizkuntza Eskolaren eskutik. Sarrera librea. Portalean.

**KALEETAN KANTUZ**

19.30.- Kaleetan Kantuz. Entsaioa. San Andres elizako lokalean.

**diru-laguntzak**

**UEUko matrikularako**  
 Zenbatekoa: Matrikularen erdia.  
 Epea: **Malatzaren 30era arte.**  
 Non: Pegoran.

**10 eguna**

**IKASTEN**

11.30.- Bideokonferentzia: 'Algunos avances de la medicina en el último siglo'. Hizlaria: Jose M<sup>º</sup> Urkia Etxabe (EHUko irakslea). Hezkuntza Esparruan.

**HITZALDIA**

16.00.- Gaixoa etxean estimulatzea', Afagi elkartearen eskutik. Egogain Gerontologia Zentroan.

**UNI ENCOUNTER**

16.00.- 'Segurtasunaren eguna'. Uni Eibar-Ermuan.

**HITZALDIA**

17.30.- "Cómo mejorar tu alimentación". Hizlaria: Aitzol Alzibar (elikaduran diplomatua). Beheko Tokian.

**EGO-IBAR ZINEKLUBA**

17.30 eta 21.00.- 'El violín' (Zuz: Francisco Vargas Quevedo). Sarrera: euro 2. Hezkuntza Esparruan.

**GURASOAK MARTXAN**

19.00.- 'Cómo prevenir el fracaso escolar'. Aldatzen.

**HITZALDIA EUSKERAZ**

19.00.- Jon Maia bertsolariaren hitzaldia, 'Riomundo' liburuz eta kanpotik Euskal Herrira etorritako bere familiarren historiari. Hizkuntza Eskolaren eskutik. Sarrera librea. Portalean.

**OPERA**

20.30.- 'La Traviata', Nueva Lírica konpainiarekin. Sarrera: 20 euro. Coliseoan.

**bestelakoak**

**Udalekuak 2008**  
 Izena-emateko epea: **martxoaren 31tik apirilaren 9ra** (7-13 urte bitarteko umeak) **eta apirilaren 17tik 25era** (14-17 urte bitarteko umeak).  
 Informazioa: www.gipuzkoa.net/oporraldi edo Gazte Informazio Bulegoan (Portalean).



## Pelota Astelenan

Domeka, apirilak 6. 17.00etan hasita.  
1. partidua: - **Buruz-buruko txapelketa:**  
**Xala vs Laskurain.**  
2. partidua: González-Barriola vs  
Mtnez. de Irujo - Goñi III.a.  
3. partidua: Buruz-burukoa:  
Olazabal vs Ongay.

## Kiroldegiko ordutegia

**Udaberri-Uda ordutegi berria.**  
apirilaren 6tik aurrera:  
Astelehenetik barixakura, 07.30 - 22.00  
Zapatuetan, 09.00 - 13.00  
eta 16.00 - 20.00  
Domeka eta jaiegunetan,  
09.00 - 13.00

## ikastaroak

### Gurasoak Martxan

'Curso de habilidades para la vida', Hilario Garrudo psikologoarekin.  
Norentzat: 12-16 urteko seme-alabak dituzten guraso edo arduradunentzat.  
Noiz: **Apirilak 17 eta 24 eta maiatzak 6.**  
18.00etan Portalean.  
Matrikula: Doan. Pegoran.  
Epea: **Apirilak 11.**

### Kzguneko mintegiak

**Sinadura elektronikoa**  
Noiz: **apirilak 10** (16-17);  
**apirilak 15** (11-12);  
**apirilak 25** (18-19) eta  
**apirilak 30** (11-12).  
Banka elektronikoa  
Noiz: **apirilak 23 eta 24**  
(18-20).  
**Berehalako mezularitza**  
(messenger)  
Noiz: **apirilak 28** (09-11).  
Non: Karmen kaleko  
KZgunean.

### 'Menpekotasunaren prebentziorako'

Noiz: **Apirilaren 7tik ekainaren 30era**, goizez  
Ipuruako jubilatutako etxean  
eta arratsaldean Beheko Tokian.

## erakusketak

**Apirilaren 20era arte**  
**Eibarko Artista Elkartearen erakusketa. Portalean.**  
**Corrado Masacci-ren**  
'Zirkoa eta txotxongiloak' erakusketa. **Portalean.**  
**Mercé Martínez-en**  
'Collagea'. **Topalekuan.**  
**Apirila amaiera arte**  
**'20 urte EH zeharkatzen'.**  
Deporreko mendi taldea 1988-2008.  
**Deporreko tabernan.**  
**'Aratosteak 2008'.**  
Deporreko Argazkilaritza Taldea. **Ambigú eta Portalea tabernetan.**

## lehiaketak

**Sanjuanak 2008**  
**Eibarren kartel lehiaketa**  
Epea: **Maiatzaren 16ra arte.**  
Informazioa:  
Pegora eta Portalean.  
**Alkohol larregi edatearen kontrako pegatina lehiaketa**  
Epea: **Maiatzaren 16ra arte.**  
Informazioa:  
Pegora eta Portalean.  
**Eskola Agenda 08-09 azala diseinatze lehiaketa**  
Epea: **Maiatzaren 16ra arte.**  
Informazioa:  
Pegora eta Portalean.

## santerak salgai

**DOKUMENTALA**  
'S.D. Eibar. El documental'.  
**Apirilak 4**, 20.00.  
'S.D. Eibar. El documental'.  
**Apirilak 6**, 19.00.  
**ZINEA**  
'El sueño de Casandra'.  
**Apirilak 8**, 21.30.  
**OPERA**  
'La Traviata'.  
**Apirilak 10 eta 11**, 20.30.  
**MUSIKA**  
Bilboko Txistulari Banda.  
**Apirilak 12**, 20.00.

## laster salgai

**ZINEA**  
'Borrachera de poder'  
(jatorrizko bertsioa).  
**Apirilak 15**, 21.30.  
'Tener y no tener'  
(jatorrizko bertsioa).  
**Apirilak 22**, 21.30.  
**ANTZERKIA**  
'Inalanbrikak'.  
**Apirilak 19**, 18.00.  
**DOKUMENTALA**  
'Tierra'' (BBC).  
**Apirilak 29**, 21.30.

## farmaziak

**4. barixakua**  
GOIZEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)  
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)  
**5. zapatua**  
GOIZEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)  
**6. domeka**  
GOIZEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)  
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)  
**7. astelehena**  
GOIZEZ **Las Heras** (Sostoaarren, 20)  
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)  
**8. martitzena**  
GOIZEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)  
**9. eguaztena**  
GOIZEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)  
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)  
**10. eguena**  
GOIZEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)  
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)  
**11. barixakua**  
GOIZEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

## hildakoak

- **Tomasa Elkoro Golonetxea.**  
92 urte. 2008-III-27.
- **Sinfrosa Quintas Cid.**  
90 urte. 2008-III-27.
- **Manuel Fariñas Silva.**  
85 urte. 2008-III-28.
- **Juanito Txurruka Sologaitua.**  
83 urte. 2008-III-28.
- **Pío Delgado Ferreiro.**  
87 urte. 2008-III-28.
- **Soledad Herrero Barriuso.**  
91 urte. 2008-III-29.

## jaiotakoak

- **Iharte Gil Tubia.** 2008-III-21.
- **Naroua Kouza Chiker.** 2008-III-22.
- **Nora Martínez Baroja.** 2008-III-24.
- **Ruth Postigo Diz.** 2008-III-25.
- **Paula González Rejano.** 2008-III-26.

# zinemazinemazinemazinema




## untzaga

"27 vestidos"

ZUZENDARIA:  
**Anne Fletcher**  
AKTOREAK:  
**Katherine Heigl, James Marsden,**  
**Malin Akerman, Judy Greer...**

Jane behin baino gehiagotan izan da ezkontzako ohorezko dama. Oraingoan bere ahizparen ezkontzan izango da berriro ere ohorezko dama, baina inork ez bada-ki ere, arazoa beste bat da: George se-nargaia du gustoko...



## ego-ibar

"El violín"

ZUZENDARIA:  
**Fco. Vargas Quevedo**  
AKTOREAK:  
**Angel Tavira, Dagoberto Gama,**  
**Fermin Mtez., Gerardo Taracena...**

Plutarco, Genaro eta Luciok famili bereko hiru belaunaldi betetzen dituzte. Musikiariak dira, baina aldi berean gobernuaren kontrako gerrilariak. Armada herrian sartzen denean, musikaz baliatuko dira euren helburuak lortzeko...

## ETXEBIZITZAK

- Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 626-380238.
- Eibarren edo inguruan pisua edo logela hartuko nuke alokairuan. Tel. 625-265942.
- Bikoteak Eibarren pisua hartuko luke alokairuan. Tel. 680-579670. Egoitz.
- Debarrenean pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 662-239392.
- Soralezko Rabal kalean pisua salgai. 64 m<sup>2</sup>. Logela bi, egongela, sukaldia eta komuna. Tel. 658-339709.
- Elgoibarko erdialdean pisua salgai. 136 m<sup>2</sup>. Tel. 619-409273.

## LOKALAK

- Eibarren garajea hartuko nuke alokairuan. Tel. 620-160303.
- Elgoibarko Sigma poligonoan pabilioiak salgai (200 eta 400 m<sup>2</sup>koak). Tel. 619-409273.
- Garajerako plaza alokagai. Eibarko zentroan. Tel. 600-018668.

## SALEROSKETAK

- Musika kate profesionala salgai: etapa das 250W; MP-3 5810-N cd fonestar; array ps-8" kaxa bi; eta audio phony XS-2 nahasketa-mahaia. Tel. 615-727286. Aitor.
- Yamaha 421D gitarra elektriko salgai. Seymour Duncan pastillekin. Tel. 665-732640. Aitor.
- Tokadore-oha (0'90), sukaldiera mahaia sei jarlekurekin eta ikasteko mahaia salgai. Horrekin batera opariak. Deitu 19.00etatik 23.00etara. Tel. 665-741300.

## AUTOAK

- Renault Traffic ekipatua salgai. Bidaitezko 5 plaza, 4 lo egiteko. Sukalde guztiz ekipatua, igo daitekeen sabaia, berogailu estatikoa eta jarleku giratorioak. Dutxa, tolo eta bizikletak eta eskiak eramateko. 75.000 km. 2003 urtekoa. Egoera onean. Tel. 658-710899 edo 685-725840.
- Karabana salgai. 7 metrokoa. Kalefazio eta ur berogailua. Komuna, dutxa eta sukalde osoa. Kanpoan. Mutrikuko Santa Elena kanpingean. Tel. 652-750361.

## ANIMALIAK

- Hilabete biko ehiza-txakurra oparitzen da. Tel. 943-120835.

## LANA

- Mutila eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 626-380238.
- Neska eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 626-380238.
- Neska behar da ileapaindegirako. Ofiziala edo laguntzailea. Tel. 943-207630. M.Carmen.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 943-254314.
- Emakumea eskaintzen da goizez umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 686-435056.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 616-230814.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 648-210838.
- Neska arduratsua eskaintzen da goizez etxeak edo pegoarak garbitzeko. Tel. 665-726288.
- Kamarera/o behar da terraza batean lan egiteko. Tel. 943-701207.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 679-578511.
- Emakumea eskaintzen da gauzez edo orduka nagusiak zaintzeko. Tel. 690-199860.
- Neska eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 635-355168.
- Neska eskaintzen da arratsalde umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 666-815008.
- Emakumea eskaintzen da goizez edo orduka edozein lanerako. Tel. 656-781743.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 648-603029.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 606-169667.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Geriatrian esperientziarekin. Tel. 699-576107.
- Kamarera behar da asteburuetarako. Tel. 943-121262.
- Neska eskaintzen da goizez etxea garbitu edo propaganda banatzeko. Tel. 690-791689.
- Neska eskaintzen da umeak eta nagusiak zaintzeko, eta baita garbiketarako. Tel. 608-376387.
- Gizon euskalduna eskaintzen da nagusiak zaindu edo pasiatzeko. Tel. 652-766525.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako. Esperientziaduna. Tel. 678-939382.
- Sukaldaria edo sukalde-laguntzailea behar da jatetxe baterako. Tel. 943-206868 eta 661-700440.
- Emakumea eskaintzen da orduka pertsonak zaintzeko (externa). Tel. 679-095634.
- Gizona eskaintzen da eraikuntzan peoi lanean aritzeko, baita pulimontoan ere. Tel. 943-530718 eta 605-363960.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko (interna). Tel. 943-530744 eta 645-359279. Nuri.
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko eta josteko. Tel. 943-742201 eta 652-715908. Araceli.
- Emakumea behar da umeak zaintzeko. Esperientziaduna. Tel. 943-700400.
- Emakume euskalduna behar da umea zaintzeko. Tel. 615-756681.
- Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxe lanetarako. Lanordua: goizez edo arratsalde. Tel. 605-772606.
- Mutila eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 615-756686.
- Neska eskaintzen da umeak eta nagusiak zaindu, etxe lanak egin eta garbiketarako. Tel. 626-536566.
- Neska eskaintzen da umeak eta nagusiak zaindu, etxe lanak egin eta garbiketarako. Tel. 620-336722.
- Emakumea eskaintzen da orduka umeak edo nagusiak zaindu eta etxe lanetarako. Tel. 626-172765.
- Gizona eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 646-594587.
- Gizona eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 680-674323.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 662-423898.
- Neska eskaintzen da arratsalde nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 666-815008.
- Neska eibartarra eskaintzen da orduka umeak zaintzeko. Tel. 626-566776. Nuria.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta edozein garbiketa lanak egiteko. Tel. 686-127137.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta bestelako lanetarako. Tel. 618-175692.
- Neska eskaintzen da umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 662-365609.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, baita ospitalean ere. Tel. 649-313548.

Iragarkiak ipintzeko:  
943-200918 (Marisol).

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako **PREZIOAK** honakoak dira: **Etxeak, lokalak, garajeak:** alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. **Autoak:** 10 euro. **Doaneko iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.**

## ...eta musu bat zuretako

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 3 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 6 euro. Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, JONE  
Arritokieta Alegria,  
hillaren 1ian urtebete  
egin zenduan-eta.  
Aitatxo eta amatxoren  
partez..




Zorionak, CLAUDIA,  
bixar urtia betetzen  
dozu-eta. Muxu haundi  
bat famelixaren partez.  
Jarraittu sorgintxo  
sinpatikua izaten.



Zorionak, amama  
ESTHER!! Bixar urtiak  
betetzen ditzuzulako.  
Patxo haundixak  
zure billoba guztien  
partez.



Zorionak, XABIER,  
martitzenian 8 urte  
beteko ditzuzulako.  
Famelixaren partez.



Zorionak, ANDER, gaur  
bertan urtiak egitten  
dozuz-eta. Famelixa  
guztiaren partez.



Zorionak, IMANOL,  
domekan urtiak egin  
zenittuan-eta. Lagunen  
besarkada eta muxu  
haundi bat.




Eibarren hasierako jarduera du. Aktibitatea **EIBARKO MEDIKUNTZA ZENTROAN** garatuko da, orain dela 20 urtetik hona Eibarren lanean diharduen eta Urkizuko dorreetan instalazio berriak zabaldu dituen zentroan.

Medikuntza eta estetikako **S2B** unitateak honako aktibitateak biltzen ditu **EIBARKO MEDIKUNTZA ZENTROAN**:

- Fotodepilazioa**
- Fotogaztetzea**
- Eguzki-orbanen tratamendua**
- Gorputz tratamenduak**
- Aurpegirako tratamenduak**

**1.- BEREZ MEDIKOAK DIREN AKTIBITATEAK:**  
Laguntza medikoa Kirurgia, Medikuntza estetikoa, Dermatologia, Dietetika eta Nutrizioa espezialitateetan.

**2.- ESTETIKA AKTIBITATEAK:**  
Tratamenduen area: tratamendu guztiak gure mediku taldeak baloratu, gainbegiratu eta kontrolatzen ditu. Konbinatutako teknikekin egiten dugu lan, paziente bakoitzaren adinaren eta azalaren egoeraren edo fototipoaren arabera tratamendu protokoloak antolatuz.



- **Fotodepilazioa**
- **Fotogaztetzea**
- **Eguzki-orbanen tratamendua**
- **Gorputz tratamenduak:**
  - Zelulitisa
  - Biguntasuna
  - Likidoen erretentzioa
  - Lokalizatutako loditasunak
  - Nekatutako hankak
  - Zirkulazioa
  - Erreflexoterapia
  - Tratamendua algekin
- **Aurpegi tratamenduak:**
  - Deshidratazioa
  - Nutrizioa
  - Zahartzearen aurkakoa
  - Biguntasuna
  - Azal koipetsua
  - Aknea
  - Zimurrak

### Azken belaunaldiko kosmetika

Gure eredu mediko estetikoa bezeroei zelulitisa, biguntasuna, hanka nekatuak, estriak, adinaren aurkakoa, obesitatea, barizeak, zimurrak, depilazioa eta abarren tratamendurako kirurgikoak izan barik alternatiba mediko eta estetiko onenen eskaintzan oinarritzen da.

Premisa horri jarraituz, funtzio mediko eta estetikoak aurrera eramateko kualifikatutako pertsonalak hornitzen du gure unitatea; horrez gain, espazio eta tresneri konkretua erabiliz.

Horregatik, beste zentro mediku estetikoekin dugun aldea da aspektu medikua ez dugula sendagile estetiko baten elkarlan puntuean oinarritzen, baizik eta gure lana bermatzen dugula eta pazientei koadro mediko baten integrazioa eskaintzen diegula. Aktibitatea aurrez egindako diagnostikoarekin hasten dugu,

hainbat espezialitate medikuekin elkarlanean: dermatologia, kirurgia plastikoa, kirurgia baskularra, medikuntza estetikoa...

Bestalde, Unitateak berez estetikoak diren aktibitateak garatzen ditu: depilazioa, masajeak, tratamenduak, etb. Hasieran ez badute osasun laguntzarik behar ere (estetika zentroetan garatzen diren moduan), praktikak erakusten digu osasun arloko elkarlana funtsezkoa dela. Horregatik ATS profesional baten partehartze eta praktika zuzen eta jarraituaz kontaktzen dugu.

Enpresa bat gara, medikuntza, dietetika eta nutrizioa eta estetikari diharduten profesionalak osatua. Gure taldeak urte askotako esperientzia du eta elkarlanean jarduten du, zerbitzu globala ematez gain teknologia aurreratuena erabiliz.

Guzti horrek eraginkortasun berme osoa ematen die gure bezeroendako tratamenduei.

Azken urteotan osasuna prebentzioari, ongizateari eta edertasunari lotuta doa. Horregatik gure proiektuak itxaropen horiek bete behar ditu. Kalitate handiko Unitate edo Zentroa proiektatu dugu, bezeroengandik gertu dagoena.

Eskaintzen ditugun tratamenduen kalitatea ziurtatzeko, beharrezkoak diren teknologia eta espezializazio teknikoak dugu eskura. Gure bezeroei harreman pertsonalizatua eskaintzen diegu eta gure tratamenduetatik onura handienak lortzeko aholkua.

Gure zentruetan bezeroak eskura izango dituzte bere osasuna, ongizate eta edertasunerako teknologia eta kosmetika gaurkotuenak.

**centro médico eibar osasundegia**


Urkizu Pasealekua, 13

**S2B**

Tfnoa. 943.120.200



MONUMENTU ARTISTIKOA




# LASA JATETXEA



*250 LAGUNENDA KO  
JANGELA*

.....  
*ERA GUZTIETAKO BANKETEAK  
ospatzeko toki bikain batean*



**Ozaeta Jauregia**  
**Tel. 943 76 10 55**  
**Faxa: 943 76 20 29**  
**[www.restaurantelasa.com](http://www.restaurantelasa.com)**  
**BERGARA**